

Zerrajerako espealentearen onaren, Koneoren txahaa

# ARRASATE <sup>PRESS</sup>

1993ko apirilak 30

190. zenb.

Elkarrizketa  
**Txus Congil**

“Tunantes del Norte”

# Etxe faltaren komedia



# Uruburu (Udela)

**U**delako goiko au-  
zuen bidiaz gaine-  
kaldetik dauen etxe  
bakarra da Uruburu, gure ar-  
tien ezaunaue Kabuena ize-  
naz.

Hemen gaur egun bizi  
dienak Felipe Murgoitio Ma-  
dariaga bertako semie, 77 urte  
daukena; bere andrie dan Luxia  
Azkoaga Madinabeitia auzoko  
Larrinetxekue, 66 urtekue; Ai-  
tor euren semie, Aintzane erra-  
na eta Eider ilobie die.

Murgoitio apellidue Biz-  
kaitik etorritzekue da, Elo-  
rrixoko Elaa auzotik, hangue  
zan eta Felipe aitte. Ama bar-  
rez, nahiz da jatorriz udelarra  
izen, Bilboko Artekalen jaixue  
zan.

Etxie 20 bat urte dala erosi  
utsien Elorrixon palazie  
euken Markes de Tolari.



Felipe ta Luxia 43 urte dala  
ezkondu zien eta hiru seme-  
alaba euki dittue: Patxi, Aran-  
txa eta Aitor.

Ezkonduaz geroz, Felipek  
fabrikako eta basarriko lanai,  
bixei heldu eutsen. Mietzako  
kanteran, Civasan eta azke-  
nengo Amaten ibili zan. Beti  
euki izan dittu ganauek eta

Luxia oin dala bi bat urte arte  
Mundraueko kaleko esne-sal-  
tzailetariko bat izen da.

Gaur be Aitor, fabrikan  
lana in arren, ganau kontuetan  
saiaketan da, eta Asturiano  
arrazako buru ederrak hazi  
izen dittu.

Udelan inguru honetan in-  
txaur arbola ugeri euen, nun-



bait hemengo lurrek onak izen  
landara horrendako.

Felipek kontetan dau bere  
amandren denboran, etxe az-  
piko zelaixen harri koxkortxo  
batzuk besterik ez ziela ikus-  
ten eta gaur danok ezauketan  
daun Udelako zelai hori erosi-  
nuen eraginez zelau dauen,  
hatx galantak bistan dittuela.

**'CARFRA' SUKALDE  
ALTZARIAK  
5 URTETAKO  
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN  
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU  
ENPOTRATUAK  
ISPILU-ATE  
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA  
KANPOKO ATEAK**



**CF  
CARFRA**

Atenea

**Berango**  
ALTZARIAK

**ERAKUSKETA**

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

**ARRASATE**

**DeLonghi**

marka  
italiarraren  
banatzaile  
ofiziala

Gatzagan,  
erdi erdian...  
**ZUHAITZ  
JATETXEA**



**ARAMAIO  
okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46


**VE ECUADOR**

**Bidaiak**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

# Soldaduzkara joan zen hura...

**S**oldaduzka kontuekin nator soldaduzkarik ia egiten ez den sasoi haue-tan. Arrasateri dagokionez behintzat irudi hori hartzen dut nik. Baina gaur egun nor doa, bada, soldaduzkara? Ingurukoekin barriketan, galdera horretaraino ere ailegatu izan gara behin baino gehiagotan. Edo nire ingurukoak "erreboltoso" batzuk dira, ala benetakoa da gazteak gaur egun ez direla soldaduzkara joaten. Komunikabideetan, dena den, "istripuetan" hildako soldaduen izenak sarri-sarri ageri dira. Norbait joaten da, beraz.

Oraindik urte asko ez direla, kuadriletan eta etxean bertan makina bat bider entzun behar izan ditugu kapitanaren kabroikadak, lagunarteko mozkorraldiak eta nesketan egin-dako "balentriak". Gaur egun, gehien jota, soldaduzkatik libratzeko egin-dako zelebrekeriak entzuten ditugu. Edo ni despistatuta bizi naiz ala egungo egoera eta gazteak desberdinak dira. Lehenengoa guztiz ukatu barik, bigarrenari emango nioke indarra.

Erakunde antimilitaristaren datuetan Deba Garaian 50 intsumiso inguru daukagu: Arrasaten 20, 23 Bergaran, 10 Oñatin, Aretxaletan 5, Eskoriatzan 7 eta Antzuolan 4. Baina zerbitzu sozialik egiteko asmorik ez duten kontzientzi


eragozleak ere makinato bat izango dira, eta izenik apenas inon eman ez duenik ere izango da seguruenik. Gehiago dira beraz.

Intsumisioaren jarrerak nahiko burukomin eman izan dio askotxori. Modu batera euskal gazteen intsumisiozetasunaren aurrean. Estatuari ere burukomin ugari sortzen dizkio eta, segurasko, etxe askotan ere eztabaida, oihu eta erreguak ez ziren, ez dira txantxetakoak izango.

Bai, etxe kontu horiek aipatzean gurasoen jarreraz ari naiz batez ere; intsumisioaren aurrean freno lana egiten duten gurasoen jarreraz, alegia. "Ez zaitez problemetan sartu, kontuz gero! lelokeixarik ein barik..." sarri-sarri entzundakoak ditugu gazte gehienok. Dударik ez, "artikulo 33".

Soldaduzkari bakarrik ez, oostera, beste intsumisio mota ugari hedatu beharra dago gure artean. Zenbait emakumek hori aldarrikatu zuten aurten-go martxoaren 8an. Leioako unibertsitateko irakasle euskaldun batzuk ere berdin egin dute funtzionaritzaren sistemarekin, Euskaltzaindiako arau batzuen aurrean ere agertu dira zenbait intsumiso... Ondo edo txarto dauden aztertzen ez naiz hasiko baina, duda barik, egungo gizartean badago intsumisioaren jarrera hara eta hona hedatu beharra. Soldaduzkari dagokionez, nola-hala baina gura ez baduzu ez joan.

**XABIER LETONA "ATAXI"**



## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.- 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Makotzailea:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Inaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Aranburu, Udako Inguurigo Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Inaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Anton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS  
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Jabier

**GORKA**  
**ILEAPAINDEGIA**  
 Ferrerías, 35 ARRASATE  
 Tfnoa: 76 08 14 / 77 13 78

**Memesa**  
**79 42 22**



**ITURRIOTZ**  
**taberna**  
**Girorik**  
**jatorrena!**  
 Tfnoa: 79 16 04

**I**  
**R**  
**T**  
**A**  
**B**  
**E**  
**R**  
**N**  
**A**

Ferrerías kalea  
 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 56 11

•••••

**Udala eta euskara**

**1** 992ko abenduaren 28an, Eskoriatzako Udaleko Gobernu Batzordeak Eskoriatzako Udalerriari eta Udaletxean euskararen erabileraren normalkuntzarako arauari buruz proposatutako Udal Ordenantzari baietza eman bazion ere, Gobernu Batzorde horrek aipatutako Udal Ordenantzaren onespena atzertzea erabaki zuen 1993ko martxoaren 25ean denon harridurarako.

Udal Ordenantza bapatean martxan jartzeak ekar lezakeena kontutan hartuta, Udalbatzak apurka-apurka eta progresiboki aurrera eramatea proposatzen du, lehen onartutako testuari, ondoren literalki agertzen den tratamendua emanez:

“Eskoriatzako Udala Ordenantza hau progresiboki martxan jartzeaz arduratuko da eta bertan aipatzen diren arauak betetzeko hiru urtetako epea dauka. Epe honetan zehar, progresiboki aplikatuko da egoera bakoitzak dituen ezaugarrieko egoituta baloratuko delarik”.

Axtrokik bere aldetik, progresibotasuna onartu arren, markatu beharra ikusten du eta horixe izango da maiatzaren 5ean izango den Euskara Batzordean proposatuko duena.

**AXTROKI**  
**ESKOITZAN EUSKARAZ**

•••••

**“Berri-Zahar” taldea**

**G**ure inguruan ezaguna da “ez daukanak badaki, eukitzea zein den ona” esaldia. Kontu antzerakoa gertatu izan da euskaldun berrien kasuan ere. Batzuk familia berri batera sartu nahi eta gizarteak berriz, ez du orohar jakin izan jende berri horren ahalegin itzel eta agorkor horri bere pareko errekonozimendu eta integrazio bide horretan euskari iraunkorrek jartzen. Zorritzarrez euskaldun berrien gaia bakarrik euskaltegiko aukerari hertsiki loturikoa izan da batez ere. Baina ez dezagun ahaztu euskara bizitza bere manifestazio zabalean dela; ez gehiago ez gutxiago.



Gai honi loturiko orain arteko ekimenez gain (erabilpen gunea e.a.) motore berri bat agertu da: Beinke elkartearen barruan gauzatzeko ari den Berri-Zahar taldea. Helburu luzekoa, euskaldun berriak euskaraz gizarteratzen laguntzea.

Labur esanda, lagun egiteko bideak jartzen saiatzea ekintza erraz eta alaien bitartez, beraiek antolatzaile eta partaide nagusi direla. Nondik nora joko dugun, hasiera batean guk uste genuen baino gehiago daki gure izenak berak. Kezkatan gunden zein izen jarri, izanari ohore egingo dion zerbait nahi genuen eta horretan bi adjetibo horien ordenak usitez zeharo aldatzen zigun panorama. “Zahar-Berri” jarri izan bagenio, hizkuntzari emango geniokeen lehenentasuna; zaharra berritu. Bestera berriz, “Berri-Zahar”, euskaldun berria bera da azaletik mamira pasatzen dena. Biak ere beharrezko, duda barik.

I.I.I.

**FANCY**  
**FANCY**  
 Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**Basabe**  
**jatetxea**  
 Menu eta afariak  
 Boda eta banketeak  
 Industrialdea  
**ARETXABAETA**  
 Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

# Zer iritzi duzu ITV Bergaran pasatzeko aukeraz?



**Amaia Moreno**  
Langabetua (32 urte)

Orain dugun autoaz ez dugu ITV pasatu, baina lehen bai, eta Mirandara eroaten genuen, txanda eskatu beharrik ez dagoelako. Orain Bergaran badago, fenomeno, lehendik egin behar zuten hori.



**Carmelo de la Fuente**  
Arraindegian saltzaile (48 urte)

Derrigorrezko auto azterketa ez zait tokatu oraindik, baina ez zait normala iruditzen hainbestetan pasatu beharra. Ez nekien Bergaran zabaldu behar zutenik.



**Maria Teresa Arnaiz**  
Etxekoandrea (43 urte)

Behin tokatu zitzaidan ITV eta Mirandara eraman nuen, beste batzuek ere bertara eramaten dutelako. Bergarakoaz ideiarik ez nuen, baina hurbilago badago, ez dago hain urruti joan beharrik.



**Pedro Garcia**  
Fagorreko langilea (55 urte)

Ez daukat kotxerik, baina ondo dago azterketa pasatzea. Badakit Mirandan errazagoa dela, eta ez nekien Bergaran egongo denik, baina ondo dago, ea antzera portatzen diren.



**Jose Luis Ausin**  
Injinerutza ikaslea (24 urte)

Nik ez daukat autorik, baina bost urterekin ITV pasatzea azkarregi dela uste dut. Bergaran ireki behar zutenik ez nekien, baina ondo iruditzen zait, hurbilago hobeto.



**Maribi Mendialdua**  
Etxekoandrea (32 urte)

Nik ez dakit errebisioaren berri, zelan ez daukaten karnetik... Nora eroan behar izaten da? Mapfrera edo? Ni ez naiz preokupatzen, baina kotxea txarto badago, ba egin egin behar da.



**Migel Angel Mondragon**  
Fagorreko langilea (47 urte)

Urtero pasatzen dut, Gasteizen eta Mirandan. Jakinaren gainean nengoen Bergarakoaz. Ondo dago, pasatzera behartzea, hobeto zainketan obligatzen dute eta.



**Mila Goikoetxea**  
Etxekoandrea (32 urte)

Guk Mirandan pasatu genuen azkenengo. Badakit Bergaran zabaldu behar dutela, atzo ikusi nuen eta Arrasate Telebistan. Gertuago hobeto, Gasteizera joan gabe edo.



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
Iaruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**GIZA-ORIENTAZIOA**  
Kristalezko bola / Tarota  
**PILAR OCONHOR**  
Ordua hartuta: 79 67 65

**ARRASATE**  
**HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

<b>Eritxeak</b>	
Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11
<b>Gurutze gorria</b>	
Bergara .....	76 55 76
<b>DYA</b>	
Antzuola .....	76 62 91
<b>Anbulatorioak</b>	
Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	71 44 52
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16
<b>Anbulantziak</b>	
Gipuzkoako ambulanziaz .....	45 87 44
<b>Udalzaingoa</b>	
Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22
<b>Ertzaintza</b>	
Arrasate .....	79 71 99
<b>Suhiltzaileak</b>	
Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillergako Eskualde-Parkea .....	78 28 00
<b>Matxurak</b>	
Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
<b>Garraloak</b>	
Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19
<b>Hirugarren adinekoentzako zentruak</b>	
Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuena egoitza .....	79 81 57
<b>Kontsumitzailearentzako informazioa</b>	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55
<b>Monterrongo liburutegia</b>	
Monterron .....	77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

<b>Ostirala 30</b>	
Egunez: Ruiz, Maala.	
Gauetz: Ruiz, Maala.	
<b>Larunbata 1</b>	
Egunez: Morales. San Andres.	
Gauetz: Pedro Deunaren.	
<b>Igandea 2</b>	
Egunez: Azkoaga, Ferrerías.	
Gauetz: Mozos, Pedro Deunaren.	
<b>Astelehena 3</b>	
Egunez: Español, Iturriotz.	
Gauetz: Camacho, Oxirondo.	
<b>Astearte 4</b>	
Egunez: Corcuera, Musakola.	
Gauetz: Puy, Barrenkale.	
<b>Asteazkena 5</b>	
Egunez: Inzar, Erguin.	
Gauetz: Guallar, San Antonio.	
<b>Osteguna 6</b>	
Egunez: Amezua, Santa Marina.	
Gauetz: Estella, Matxategi.	

**30 OSTIRALA**

**ZINEA**

"Esencia de mujer" (7,10)

**TXONTXONGILOEN II. NAZIOARTEKO MOSTRA**

- Gus Marionetas-en emanaldia. Bergarako Zabalotegin. Gaueko 8etan.
- Markeliñe-ren emanaldia. Bergarako Martin D. Enparantzan. Gaueko 10etan.
- Gabriel Castilla-ren emanaldia. Bergarako Pol-Pol tabernak. Gaueko 12etan.

**ROCK KONTZERTUA**

"El inquilino comunista" eta "Los clavos" taldeen rock kontzertua. Gaueko 8.30etan. Arrasateko Gaztetxean. Sarrera: 400 PTA. AGAKOK antolatuta.

**SAN ANDRES AUZOKO JAIAK**

Dantzaldia Samuray taldearekin. Gaueko 10.30etatik aurrera. San Andres auzoan.

**TXONTXONGILOEN NAZIOARTEKO II. MOSTRA**

Begarako Taun-Taun taldeak antolatuta, Helduentzako Txontxongiloen II. Nazioarteko Mostra burutzen ari da Bergaran. Apirilaren 29tik maiatzaren 2a bitartean, herrialde desberdinetako taldeen emanaldiak izango dira protagonista: Malagako El Espejo Negro, Nafarroako Gus Marionetas, Zornotzako Markeliñe, Argentinako Gabriel Castilla, Segoviako Libelula, Valentziako Edu Borja, Italiako Hugo e Ines... Egunero bi-hiru emanaldi desberdin egongo dira. Horretaz gain, apirilaren 29tik eta maiatzaren 9ra, Taun Taun kolektiboaren erakusketa dago zabalik Kultur Etxean.

**1 LARUNBATA**

**ZINEA**

"Esencia de mujer" (4.45, 7.30, 10.30)

**TXONTXONGILOEN II. NAZIOARTEKO MOSTRA**

- Libelula-ren emanaldia. Bergarako Pol-Pol tabernan. Arratsaldeko 7etan.
- Edu Borjaren emanaldia. Bergarako Zabalotegin. Gaueko 8etan.
- La Gotera de la Azotearen emanaldia. Bergarako UNED Aretan. Gaueko 12etan.

**MENDI IRTEERA**

Gipuzkoako itzuliaren azken etapa: Untzila-Gatzaga (nagusiei zuzenduta). Irteera: goizeko 8etan Aretxabaletako Partenoitik. Gazteentzako: San Adrianera. Irteera goizeko 9etan Partenoitik.

**SAN ANDRES AUZOKO JAIAK**

Meza 11etan. 12etan herri kirolak Elorriaga, Peña, Mugarza... 13.30etan luntxa, arratsaldeko 6etan ezkongabe eta ezkonduen arteko futbol partidua... San Andres auzoan.

**SAN ANDRES AUZOKO JAIAK**

**Gaur ostirala, apirilak 30 San Andres auzoko jaiak hasiko dira. Gaur arratsaldeko 6.30etan jaiei hasiera emango zaio eta gaueko 10.30etan Samuray taldearekin jaialdia egongo da. Bihar, larunbata goizeko 11.30etan meza, 12etan herri kirolen erakusketa, 12.30etan txaranga, 1.30 luntxa. Gaueko 10.30etan panama taldearekin dantzaldia egongo da. Igandean emango zaie amaiera jaiei. Goizeko 11etan zeramika lehiaketa egingo da, 12etan gimnasia erritmikako erakusketa, arratsaldeko 5etan umeei zuzendutako jaialdi berezia eta gaueko 9.30etan Toten taldearekin jaialdia.**

**2 IGANDEA**

**ZINEA**

"Esencia de mujer" (4.45, 7:30,10.30)

**PINTURA ERAKUSKETA**

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruko ikasleen pintura erakusketa ikusteko azken eguna. Monterronen.

**TXONTXONGILOEN NAZIOARTEKO II. MOSTRA**

- Goloka taldearen emanaldia. Eguerdiko 1etan. Bergarako Martin D. Enparantzan.
- Hugo e Ines taldearen emanaldia. Gaueko 8etan. Bergarako Zabalotegin.
- La Duda taldearen emanaldia. Gaueko 9etan. Bergarako Pol-Pol tabernan.
- Paparote taldearen emanaldia. Gaueko 11etan. Bergarako UNED Aretan.

**MANIFESTALDIA**

Zabarteren egoeraz protestatzeko manifestaldia. Arratsaldeko 7etan, Herriko Plazan.

**SAN ANDRES AUZOKO JAIAK**

12etan Gimansia Erritmikoa, 1etan txikiteoa, arratsaldeko 5etan umeentzako jaialdia eta 21.30etan Toten taldearekin jaialdia. San Andres auzoan.

**3 ASTELEHENA****ZINEA**


"Esencia de mujer" (7,10)

**KOMERTZIO PLANGINTZAREN AURKEZPENA**

"Komertziorako Plangintza Informatikoa" eta "Inbertsioaren Laguntza Plangintza"ren aukerpena. Udaletxean. Eguerdiko 2.30etan.

**MASAIA IKASTAROA**

Masaia haserako ikastaroaren hasiera. Goizez 9.30etatik 12.30etara eta arratsaldeaz 6.30etatik 9.30etara. Iraupena: 5 ordu. Arrasateko Yoga Elkartearen.

**ALAI ZINEAN: ESENCIA DE MUJER**

Marin Brestek zuzendu eta ekoiztutako filme hau aspaldiko "Perfume de mujer" izeneko filmean oinarritzen da. Pertsonaia Nagusien artean Al Pacinok interpretatzen duen Lazarilloren papera goraipe daiteke Frank Sladeren pertsonaian: itsua, egun osoa edaten pasatzen duena, mozkortu gabe, umore txarrekoa, bizitzan izan dituen esperientzi txarrak gogoratzen ditu etengabe... Filme honengatik, "Urrezko Glogoa" lortu zuen Al Pacinok.

**4 ASTEARTEA****ZINEA**

"Esencia de mujer" (7,10)

**ARGAZKI IKASTAROAREN HASIERA**

Argazki ikastaroaren hasiera. Eskoriatzako Kultur Etxean. Arratsaldeko 7etatik 8etara. Elorduy Argazki Taldeak antolatuta.

**SAN ANDRES ESKOLAN ELIKADURA ASTEA**

"Elikadura" izeneko hitzaldia. Arratsaldeko 3.30etan. San Andres Eskolan. Emalea: Consuelo López Nomdedeu.

**PINTURA ERAKUSKETA**

Pasa den apirilaren 24tik eta datorren maiatzaren 2a bitartean Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruko ikasleek eginiko lanen pintura erakusketara dago zabalik. Bodegoiak, paisaiak, itsasoa... gai desberdinak isladatzen dira kuadro horietan. 15-20 ikasleek eginiko kuadroak daude ikusgai eta irakaslea Bingen de Pedro izan da.

**HASERAKO MASAIA IKASTAROA**

Maiatzaren 3an, datorren astelehenean haserako masaia ikastaroa hasiko da Arrasateko Yoga Elkartearen. Goizez 9.30etatik 12.30etara emango dira klaseak eta arratsaldeaz 6.30etatik 9.30etara. Astelehen eta asteazkenetan, bost asteko iraupena izango du ikastaroak. Interesatuok 79 35 76 telefonora dei egin edo Jose Luis Iñarra pasealekua 28 B helbidera zuzendu.

**5 ASTEAZKENA****HITZARMENAREN LUZAPENA**

Hitzarmenaren luzapenaren aurkezpena. Arratsaldeko 7etan. Monterronen. Gai zerronda: balantzea, aurrera begira egitasmoak.

**SAN ANDRES ESKOLAN ELIKADURA ASTEA**

"Dieta orekatua" izeneko tailerra. Gurasoei zuzenduta. Arratsaldeko 5.30etan. San Andres Eskolan.

**HERRI URRATS**

Maiatzaren 9an Senperen ospatuko den "Herri Urrats" egunera joateko, AEDK eta Beinkek autobusak antolatu dituzte. Irteera goizeko 8etan eta Garibai geltokitik izango da eta iluntzean itzulera. Izena maiatzaren 7a baino lehen eman beharko da AEDn, HIRE liburategian edo Iturriotz tabernan Arrasaten eta Beinken eta Arlutz tabernan Aretxabaletan. Prezioa 950 PTAKoa da. Muga pasatu behar denez, kontutan euki, 18 urtetik gorakoek pasaportea edo Nortasun agiria eraman beharko duzuela. Horretaz gain, Besaide Mendizale Elkarteak Izpegi mendatetik mendi ibilbidea antolatu du Herri Urratsera joateko. Gaua Baigorriko aterpetxean pasatuko da eta prezioa 2.000 PTAKoa da. Intereatuok, Besaideko Egoitzatik pasatu izena emateko.

**6 OSTEGUNA****ZINEA**

"Maridos y mujeres" (7,9.30)

**SAN ANDRES ESKOLAN ELIKADURA ASTEA**

"Azterketa konparatiboa" izeneko tailerra. Gurasoei zuzenduta. Arratsaldeko 5.30etan. San Andres Eskolan.

**SAN JUANETAKO TANBORRADA**

San Juanetako tanborradan parte hartzeko izenak emateko azken eguna. SUDC elkar-tearen lokalean.

**SAN JUANETAKO TANBORRADA**

San Juanetako tanborradan parte hartzeko interesa duten ume datorren maiatzaren 3, 4, 5 eta 6an eman beharko dute izena. SUDC lokalean arratsaldeko 6etatik 7etara eman behar da izena.

**SAN ANDRES ESKOLAN ELIKADURA ASTEA**

Datorren maiatzaren 3tik ostiralera bitartean elikadura astea burutuko da San Andres eskolan. Hainbat ekitaldi egongo dira bertan, ikasle zein guraso eta interesatuei zuzenduta. Astelehenean astearen aurkezpen ofiziala egingo da, asteartean eta ostira-lean bi hitzaldi emango dira: "Elikadura" eta "Elikaduraren ondorio eta eragina gure osasunean" izenpean. Horretaz gain, gurasoei zuzendutako tailer bereziak egongo dira: "Dieta orekatua" eta "Azterketa konparatiboa" izenekoak.

“Halere, 25 urtez Euskal Herriko zazpi probintzietan ibili ondoren, euskararik onena, euskal egiturari zintzoenik jarraitzen zaiona, Mondragoi, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaion eta horien inguruetan egiten dela esango nuke. Zergatik? Hori esateko beste artikulu bat idatzi beharko nuke”.

**Gotzon Garate**, Deustuko Unibertsitateko Katedratikoak

## ElgoiBARREN

“Laster, —izan ere antza denez ez da egoera konponduko duen inor agertuko—, Unión Cerrajeraren izaera industrialia itzali egingo da, atek itxi egingo ditu; goizetan eta arratsaldetan sirenak ez du hotsik egingo, eta bere isiltasunarekin, euren lanlekura ez joateko gogora araziko die sirenak langileei. (...) Gure izaera kooperatibistaren muinean beti egon da presente, sortzailearen izpirituaren eraginez, ia utopikoak ziren erronkei aurre egiteko ideia, zailtasunak gainditzeko eta erakundeak sortzeko, eta gizakiarengan eta lanarengan fede osoa eduki ezean sekula izango ez zirenak”.

**Jose M<sup>a</sup> Ormaetxeak**




“Hauteskunde kanpainaren egunak urreratu ahala, edozer gauza entzun eta ez harritzeko jarreraren jartzen da bat. Baina batzuetan ez da “ez dago eskubiderik! esatea beste erremediorik izaten(...) Euren jabearen zerbitzutan dauden telebista hauek (TV1 eta ETB2), garai berrietako NO-DO gisa, Euskal Herrian alemaniako etxe batek ibilgailu fabrika jartzeko dauden aukeren inguruan espekulatu egiten dute. Eta politikorik arbuigarrienei joko egiten ari dira, eta herriko langabetu pila handiaren ilusioekin malabarismoak egiteko ere gai dira. (...) Eta txarrena da sekula ez dela halakori iristen, eta langabetuak dagoeneko baditugu”.

**Mariano Alvarez Dorronsoro** 93-4-26

**EL DIARIO VASCO**

## Zer iruditzen zaizu dendak jai egunetan zabaltzeko aukera?

**K**omertzio Lege berriaren 16. artikulua dioenez, orokorrean, lokal komertzialentzat libre izango da irekitzea lan-egunetan goizeko 8etatik gaueko 10ak arte. Igande eta jai-egunetan lokalak itxi egingo dira. Hori lege aurreproiektua da, baina orain indarrean dagoen legeak udalei ematen die igandean irekitzeko baimen-gaitasuna. Honek esan nahi du, orain bada goela irekitzeko askatasuna, udalak baimentzen badu. Izan ere, denok dakigu Arrasaten eta beste herri batzuetan igandeetan zabalik dauden dendatxoak daudela, eta ez da inoiz ezer gertatu. Baina, jakina, lege berriaren argitan, baimenak emateko gaitasuna udaletatik Gasteizera pasatzen bada, Industria sailera, horrek esan nahi du igandean irekitzeko aukera erraztu egingo dela. Azken ebazpen hau berria da, ez zegoen legearen lehen idazkuntzan, gehitu egin dute, eta norbaitek egin duen presioagatik izan da. Honetan Europako jarreraren kontra goaz, igandetako itxieraren aldeko joera baitago. Lorden Ganbara britainiarrak igandeetan irekitzea debekatu ere egin litekeela esan du. Europako Parlamentuak igandean ez irekitzea gomendatzen du, familiak elkarrekin egoteko eguna baita. Irekitzearen kontra daude denak, hurbilago ere, Katalunia edo Valentzian, autonomi elkarte honetan ezik. Auzia ez da ordutegia. Norbaitek goizeko 8etatik gaueko 10etara irekitzea gauza normala da jada, eta ez da ezer gertatzen. Igande eta jai-egunak dira koska.



**Jesus Uriarte,**  
Ibai-Arteko lehendakaria



# GRONDO

## elektrizitatea

- \* **Elektragaiak**
- \* **Instalazioak**
- \* **Automatismoak**
- \* **Argiztapena**
- \* **Bobinaketak**
- \* **Proiektuak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa  
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76  
**ARRASATE**



**Abusu sexualak**

Esibizionismo kasu bategatiko denuntzia izan zen larunbatean Arrasaten. Musakolako kiroldegiko gimnasioan bi neskatok, gizonezko esibizionista batek masturbatzen zen bitartean sexua erakutsi ziela salatu zuten. Kiroldegiko fitxetarik, pertsona bat ezagutu eta nesken gurasoek denuntzia jarri zuten berehala. Ondorioz, Ertzantzak 33 urteko Francisco P.P. izeneko arrasatearra atxilotu zuen, eta honek aitortu egin zuen errua, eta aurretik ere egin izan zuela halakorik. Atxilotua epailearengan eraman ondoren, kasua bide judizialetik sartu da. Bestetik, Eskoriatzan 41 urteko gizon bat atxilotu zuen Ertzantzak, ume batekiko, mutiko batekiko abusu sexualak zirela eta. Pertsona hori Martutenen dago preso, baina bere izena ez du zabaldu Ertzantzak, epaileak sumarioko sekretua agindu duelako.

**Urteko eurite handiena**

Joan zen igandeko euritean metro karratuko 123,5 litro jausi ziren Arrasaten. Joan den urriko uraundietan baino ur gehiago, baina eragin murriztagoarekin. Puntu kaltetuena Musakola auzoan Gipuzkoako Etorbideko bi zenbaki izan ziren, gasolindegia parean, errekek gora egitean urak irten baitziren beren atarinen aurreko alkantariletatik.



**Langileen martxa**

Bostehun bat lagunek hartu zuten parte joan den larunbateko Deba Garaiko industri krisiaren aurkako martxan. 10.30etan irten zuten langileek Bergararik, eta eguerdian bukatu zen martxa Arrasaten. Sindikatu antolatzaileek (ELA, LAB, CCOO, ESK eta Kooperatibisten Taldea) agiri bateratu bat irakurri zuten amaieran: hamar urtetan eskualdeko enpresa inportanteenetan 2.424 lanpostu galdu direla salatu zuten, enpresa txikietan gertatzen ari den lanpostu galerarekin bat. Eskaeren artean, euskal industria publikoaren sorrera, eta INEM eta Segurantza Sozialen transferentziak aipatu zituzten sindikatuek.

Obretan ari diren eraikuntzetan ere ur putzu handiak eratu ziren, Gorostizako etxe berrietan, eta Lau-Bide proiektuko etxeetan, lehengo Roneoko terrenoen. Azken honetan, balla batzuk jausi egin ziren lubizi batean. Herri inguruko errepideetan, dena den, ez zen inon lubizirik izan, eta errekek ere ez zuten gainezka egin.

**Ludoteka: balantze ona eta aurrera**

AEDko ludotekak bere lehen batzarra burutu zuen

gurasoekin asteartean. Ludeoteka duela lau hilabete sortu zen, eta orain beste zazpibilete lanean segitzeko laguntza luzatuko dio Udalak. Balantze positiboa egin zen biltzarrean, eta zabalkunde planak aipatu ziren, auzoetara ailegatzeko: helburua Erguinen zabaltzea da orain.

**Istripua Aretxabaletako saihesbidean**

Astearte goizean istripu bat izan zen Aretxabaletako saihesbidean, Urkuluko bidegurutzearen parean.

Istripuan, aramaiotar batek gidatzen zuen Renault 11k eta gasteiztar bikote baten Renault Clio kotxeak egin zuten talka. Ez zuten, dena den, zauri larririk izan inplikatuak. Aramaiotarrak eskumako eskua apurtu zuen, Renault Clioko gidariak bularrean golpe handia hartu zuen eta aldemean zihoan neskek, berriz, sudurra apurtu zuen.

**Zentsoko zerrendan zuzenketak**

Ekainaren 6ko hauteskundeetan botoa eman ahal izateko 49 erreklamazio egin dizkiote Udalari. Zentsoko zerrendak begibistan izan dira, eta makina bat lagunek begiratu du ea bere izena azaltzen zen. Erreklamazioetan, abizen zuzenketak dira gehienak, baita dataren bat txarto eta omisioak ere, falta den jendea, alegia.

JAIOTZAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Leire Altuna Mongelos, Apirilaren 18an.</li> <li>• Mikel Gonzalez Villar, 19an.</li> <li>• Jone Barrena Arkauz, 21ean.</li> <li>• Nerea Postigo Romero, 21ean.</li> <li>• David Fuentes Iglesias, 26an.</li> <li>• Ane Rivas Martinez, 26an.</li> </ul>
EZKONTZAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Alfredo Zarate &amp; Miren Jaione Gutierrez, Apirilaren 17an. Zibilez.</li> <li>• Aitor Orobengoa &amp; Miren Josu Iregi, 24ean. Zibilez.</li> <li>• Gotzon Agirre &amp; Miren Itxaropena Leibar, 24ean. Elizaz.</li> </ul>
HILDAKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pedro Arana Ibarguen, Apirilaren 26an. 84 urte.</li> </ul>

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

**ZARRAO**

Kanpatorpea, 4  
Tfnoa: 79 12 19

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

ARRASATE



SAGRA LOPEZ \*

## Maiatzaren 1a

**Emakumea** eta lana... andrazkoa izate hutsagarik inolako ordainsaririk gabe ematen zaizkion lanen betiko zama. 1988an 509.000 euskal emakume biztanle inaktibotzat hartzen ziren. Zer esan nahi du horrek? Emakume gehienek ez dutela lanik egiten? Ez. Lantzat hartzen ez diren lanak egiten dituztela esan nahi du; izan ere, era horretako lanak egiten dituzten emakumeak, hala nola, etxekoandreak, ez baitaude INEMen inskribatuta. Emakumei ezartzen zaien etxekolana, beren gain hartuta egiten dutena, kontutuan hartzeak, Barne Produktu Gordina %35ean hartzea ekarriko luke. Bestalde, emakumei gizona baino askoz gehiago eragiten dien ekonomi murgildua ere izkutatzen da: etxean egiteko lanak eta neskameen lana, gehienetan deklaratu gabeak izaten direnak. Gainera, ez

dugu ahaztu behar gehienbat emakumeek egiten duten eta osasun-sistemak nahiz Gizarte Ongizatearekin zerikusia duten erakundeek, beren gain gero eta gutxiago hartzen duten lan garrantzitsua, berataz oso gutxi hitz egiten bada ere: gaixoen, zaharren eta abarren zaintza, hain zuzen ere. Labur esateko, emakumeok aurrezki-iturri emankorra gara sistemarentzat.

Gainera, gaur egun Euskal Herrian ordaindutako lana dugun emakumeok, gizonak baino %21.6 gutxi-

.....

***“Emakumeok, lantzat hartzen ez diren lanak egiten ditugu”***

go irabazten dugu eta, norbait kaleratu behar denean, lehenak izaten gara. Gipuzkoan lanean ari den lau biztanletik bat baino ez da emakumea. Ordaindu gabeko ihardueraren bat burutzen duten biztanleei dagokionez, Gipuzkoan 166.000 etxekoandreak eta ikasleak gara eta 35.000 langabeak. Azken datu horrek errealitatearen larritasuna erakusten du: Emakumeok, ELGE (OCDE) osoko eta estatu espainiarreko langabeen kopurua handiena da.

Deba Garaian dagoen lana erreferentziatzen hartuta, emakumeok egiten duguna %30 da. Eta INEMeko datuen erabera, langabeen %64 emakumeak gara (inskribatu eta zenbatu gabe dauden etxekoandreak aparte).

Lanpostuak emakumeentzat!

\* EGIZANEKO PARTAIDEA

## USTEAK USTE

### KILOAK ETA HARRIAK

**Sasoian sasoikoa. Uda usain handirik gabe, eta gorputza zaintzearen propaganda egiten dutenak kiloekin akordatzten hasiak egonagatik, ez gatoz gaur soberan dauden kiloan aipatzera. Kontua da kiloak aktualitate direla.**

**Mieltxo Saralegiren 320 kilokoak ez du zerikusirik Mondragoerekin, baina hori bezain astun erortzen ari da Uherkapeko maldako harrien pisua mondragotarren gainera. Goian bizi direnek plenua eskatu dute, eta baita behean bizi nahi dutenek ere. Azatzakoek eskatzen dituzten kiloak kilo, kaminoa lehenbait lehen konpontzea eta auzia hainbat lasterren desblokeatzeko konpromezua eskatzen zaio Udalari. Jasoko ahal dute harriori, denen artean.**

**Eta kiloetaz ari garenez, presupuestuetako 3.000 kiloak ere zintzilik oraingoz datorren asteko plenoan onartu arte, dena bideratuta egon arren. Makina bat elkartek bezala, pisu galanta kendu behar dute politikoek gainetik, harri latzagoa, hauteskundeena, gainean hartze aldera. Harri eta herri, besteak esaten zuen bezala.**

ARANTZAZU LOIDI

Zurgin Kantoi, 2  
Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2  
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Joan den ostirlean Kursaal kasinoaren aurrean egin zuten protesta langileek

## Zerrajerako espedientearen ondoren, Roneoren txanda

UCEM Cerrajerako langileek itxialdiak eta grebak egin dituzte aste honetan, hamar langileren kanporaketa dela eta. Transformados Metalicos eta Cerrajera enpresak, UCEM korporazioaren propietate direnak, krisi larrian daude, eta jabeek Transformados itxi eta Cerrajeran plantila murriztu egin nahi dute.

UCEM korporazioak, SFPI talde frantziarrak Cerrajeran dirua sartzeko langileak kanporatzea ezinbestekoa dela dio, baina langile komiteak gezurtatu egin du hori hala denik. Despidioak izan arren, ez dago ziurtatuta frantziarren inbertsioa, azaldu zuten prentsaurrekoan asteazkenean Juan Ramon Garaik (CCOO) eta Julian Balanzategik (ELA), langileen ordezkariak.

### Lan delegatuarekin

Cerrajerako kanporaketen kasua erabakitzeaz dauka Gipuzkoako lan delegazioak. Asteartean, langileak lan delegatuarekin, Bernardo Reyes-ekin, izan ziren, baina "ez

zuen enpresaren arazo ekonomikoez baino hitz egin, ez zuen ukitu nahi izan arazo hori zerk eragin duen".

Sindikatuek diotenez, UCEM korporazioak, industrian dirua inbertitu beharrean, nahiago du lur-zoruekin espekulatu. Horren adibide dira, Oletako terrenoak salduta lortu zituzten 850 milioiak, Cerrajeroko lurak birkalifikatzeko ahaleginak edo aste honetan jakin dena, Musakolan Roneok zeukan almagaren salmenta. Horrela lortutakoa, enpresei eta produkzioari eusten erabili beharrean, beste toki batzuetan inbertitzen ari dira, Donostiako Kursaal kasinoan, esate baterako. Langileak Kasinoan izan ziren joan den astean, hura okupatu nahian, baina polizia galerazi egin zien.

Lasterrera UCEM taldeko beste enpresa garrantzitsu batean, Roneon, beste kanporaketa espediente bat aurkez liteke aztergai lan delegazioa zioetan. Roneoko 50 edo 60 langile kanporatu nahi omen ditu UCEM korporazioak.

### Uharkape: mozioa eta beste auzi bat

Azatzako bizilagunen kontrako auzia sartu du epaitegian Uherkapeko etxeen eraikitzaileak, Construcciones Irgala enpresak. Azatzako bizilagunek Uherkapeko paretaren eraikuntza geldiarazi egin dute eta beren eskaerak "gehiegizkoak eta funtsikgabeak" dira eta haien bitartez "Udalari txantxia egin nahi diote", Uherkapekoen ustez. Etxe erosleek mozioa aurkeztu dute udaletxean, pleno batean eztabaidatzeko. Mozioan, irtenbide negoziatuaren alde azaltzen dira, baina Azatzako bizilagunen jarrera gaitzetsi dute. Dena den, Uherkapekoen iritziz, ez dira Azatzako bizilagun guztiak proiektua geldiarazi nahian dabilzanak, baizik eta batzuk bakarrik.

### Zabarte gero eta larriago

25 egun bete ditu jada Jesus Mari Zabarte preso arrasatearrak gose greban. Egoera hau salatzeke, egunero egin dira enkarteladak egunotan Portaloian, eta igandean 7etan manifestaldia izango da. Herriko 16 elkarteak agiri bat kaleratu dute, Zabarteren giza eskubideak errespetatu daitezkeen eskatuz. Salto del Negro espetxean Zabartek bi urtetan egindako laugarren greba da hau.



**ETXEPARE - BILINTX  
LIBUBUDENDA**

**Liburuak eta diskoak**

Ibargarai, 12 BERGARA  
Tfnoa: 76 40 50

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Andoni Urzelai eta Juan Luis Esperesate intsumisoak, Bosniatik itzuli berria azken hau.

## Antimilitaristak indartsu urte erabakigarri baten atarian

Arrasateko antimilitarista taldeak zenbait ekitaldi antolatuko ditu hurrengo astetan, soldadutzaren eta Ordezko Zerbitzu Sozialaren (OZS) aurka. Taldeak Gazte Zerbitzuan eskaintzen duen laguntzaz balantze positiboa egin dute: urtebetean, ehun kontsulta baino gehiago izan dituzte. Astelehen eta asteartean egoten dira bulegoan, arratsaldeetan. Une honetan, soldadutzarako 69 intsumiso, eta ordezko zerbitzu sozialerako beste 8 zenbatuta dauzka taldeak Arrasate eta Aretxabaleta artean.

Maiatzaren 1 dela eta, OZSk lanpostuak kentzen dituela salatu nahi izan dute antimilitaristek.

Aurten Gipuzkoan intsumisoen kontrako epaiketak hasiko direla eta, elkartasunaren beharra azpimarratu nahi dute. "Jendeak modu pertsonalean hartu du kontu hau askotan", dio taldeko Andoni Urzelaiak, "baina helburuak argi eduki behar ditugu, ejertzitoaren eta militarismoaren aurka ekitea dela kontua". Epaiketetara 350 gipuzkoar deitu dituzte, eta Arrasatekoak ere badira batzuk talde horretan. Bestetik, maiatzaren 7rako manifestaldi bat antolatu dute, eta hitzaldi batzuk ere egingo dituzte, hilaren 15ean objeizioaren nazioarteko eguna dela eta.

## Tabernak ixteko ordua

Udalak Jaurlaritzari errekurtsua jartzea erabaki du, tabernen itxiera ordutegia dela eta. Jaurlaritzak tabernak gaueko 2etan ixteko agindua eman zuen araudi baten bitartez, baina Udalak, Arrasateko tabernariak hala eskatuta, 2.30etara luzapena eskatu zion Jaurlaritzari. Gasteiztik ezetzarekin erantzun dute eta, ondorioz, ebazpen horren kontra errekurritu egin du Udalak. Bestetik, Arrasateko diskoteka bati isuna eta hamabost egunez gaez musika jartzeko debekua ezarri dio Udalak, itxiera eta zarata araudiak ez betetzeagatik.

## 'Gurasoak' aldizkariari laguntza

Drogamenpekotasun Prebentzio Zerbitzuari kaleratu zuten 'Gurasoak' aldizkariaren bigarren alea ateratzeko dirulaguntza ematea onartu du Udalak. Aldi berean, ikastaro edo tailer batzuk antolatuko ditu laster Prebentzio Zerbitzuak.

  
**zortzi**

**GIZON ETA  
EMAKUMEAREN  
MODA**

Otalora z/g  
Tfnoa: 79 20 50  
ARRASATE

**Hilbera  
kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

**ARRASATE  
PRESS**

**HARPIDETZAK**

 **77 05 65**

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa  
 Estimulazio goiztiarra  
 Erreabilitazio funtzionala  
 (Psikomotrizitatea eta  
 hizkuntz bereziera)  
 Logopedia  
 Laguntza terapia  
 Mota guztietako eskola  
 arazoak, enuresia  
 (Ohe bustitzea),  
 eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
 Tfnoa: 79 48 77  
 ARRASATE



Bitxiteria tailerra da aurrera doan proiektuetako bat

## Enplegu sustapen planari esker, enpresa bihurtzekotan

Iaz sei hilabeterako Arrasaten martxan jarritako enplegu sustapen programan ageri ziren lau proiektuak nahiko finkatuta daude, eta laguntza ofiziala amaitu berri zaiela, enpresa pribatu bezala aurrera segitzekotan dira. Enplegu programaren balantzea egin du berriki Udalak, eta aurten ere proiektuarekin segitzeko asmoa azaldu du, nahiz eta erabakia Diputazioaren dirulaguntza eta plan-gintzen baitan dagoen.

Mekaniko dentista, delinazio zerbitzua, bitxiteria tailerra eta bideo ekoizketa ziren programan sartutako proiektuak. Iraun duen tartean proiektu bakoitzak bere zerbitzu eta

produktu eskaintza finkatu ahal izan du, eta merkatua nondik nora dabilen ere ezagutu du.

Proiektu sustapenez gain, enplegu plan honetan zortzi kontratu egin ziren udal-zerbitzu batzuk betetzeko: ingurugiro teknikaria, delineantea, muralista, pintore eta kaldereroak. Kasu hauetan gorabehera batzuk izan dira eta aurrerantzean eskaintza errepikatzen bada, behar konkretu eta kontrastatuetan lan egiteko izango dela erabaki du Udalak. Aurten Udalerako 5 pertsona eta proiektu independenteetan beste 5 kontrataztea da asmoa, beti ere, laguntzak badaude.

## Plenoa bai, aurrekonturik ez

Ostiral honetako udalbatza edo plenoan udal-funtzionarioen pentsio eta osasun asistentziaren gaia tratatuko da. Udal funtzionarioek, orain arte, komenio berezia zeukaten gai hauetarako, baina berriki Gizarte Segurantzaren erregimenean sartu dira, eta hori dela eta, orain arte zeukaten pentsio sistema eta osasun asistentzia berezitua moztea erabaki dezake udalbatzak. Orain, herriz herri erabakiko da ea Sasfal izeneko osasun asistentziari eutsiko dioten ala, ostean, Gizarte Segurantzako sisteman sartuko diren. Auzi hau dela eta, udaletxean asanblada egin zuten asteazkenean langileek.

Bestetik, plenoan ez dira, azkenean, udal aurrekontuak tratatutako. Alderdi politikoek zeukaten eztabaida luzatu egin da, eta datorren astean tratatuko da beste pleno batean. Emendakinak salbu, 2.996 milioikoak izango dira aurrekontuak, iaz baino 31 milioi gutxiago. Atalez atal mozketak hau egin beharrak atzeratu ditu aurrekontuak.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



**Isidora Morenok** 100 urte bete zituen apirilaren 4an. Berandu samar bada ere, zorionak eta urte askotarako opa diogu. Jakin izan dugu-

nez Uribarriko jubilatuen etxera joaten da sarri sarri, eta eguraldi ona egiten duenean, kalera ere irteten du pasio txikiak ematera.



“Elgoibarren” aldizkariak erdiko orrialdeetan Lazkao Txikiri egiten dion azken agurrean eta argazkian, Kepa Urain bertsolari arrasatearraren ondoan agertzen

zaigu bertsolari famatua. Argazkiari laguntzen dion testuan, abuztuan Jose Mielek Elgoibarrera egin zuen bisita gogoratzen da.

**Aitor Orobengoa, EuEko zinegotzia Miren Josu Iregi atxabaltarrarekin ezkondu zen pasa den apirilaren 24ean. Ezkonbidaian Argentinan egongo dira jadanik. Zorionak eta ondo pasa oporretan!**

**Max Center denda handietako publizitatea lantzeko arduraduna AZK taldea izango da, barruko zein kanpoko seinalizazioa Aretxabaletako Diara diseinu enpresak egingo du eta logotipoa Donostiako Publis enpresak.**


**Pasa den asteazkenean San Prudentzio jaia ospatu zen, Arabako jai handia. Arrasaten ospatzeko ohiturarik egon ez arren, albo alboan dugun herri txiki batean bai: Aramaion. Asteazkenean jai eguna izan zen herri honetan, umeei jai izan zuten, baina langile askok Arrasatera etorri behar izan zuten lanera.**



LASO-ARREGI


**Bittor Gonzalez eta Amaia Perez de Albeniz** otsailaren 6an ezkondu ziren Arrasateko Asuncion elizan. Ezkonbidaian Brasilen egon dira. Zorionak bioi!

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE



**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**IZEN PROPIOAK**



**Eguraldi txarra egin arren, dantzariak pasaden igandean euren dantzen erakusketa**

**ezin hobea egin zuten Musakolako Kiroldegan. Inguruko herri desberdinetako**


**dantzari nagusiak bildu ziren eta ikusle asko hurbildu zen Musakolara.**

● **Jose Galan** arrasatearra, Elgoibarren burututako Gipuzkoa mailako III. Duathlon txapelketako irabazle izan zen pasa den igandean. Arrasateko Triathloi taldeko zortzi partaide egon ziren froga honetan.

● **Juan Luis Esperasate**, 27 urteko arrasatearra, hiru aste pasatu ditu Bosniako Hegoaldeko erre-fuxiatu kanpo batean kolaboratzaile gisa. Aste honetan bertan iritsi da Arrasatera.

● ARKOko Zuzendaritza Batzordeko lehendakari berria **Iñaki Aranburu** da, lehendakari ordea **Esteban Muruamendiaraz**, Diruzaina **Lurdes Nafarrate** eta idazkaria **Aranztazu Loidi**.

● **Iratxe Vazquez**, 21, arrasatearra izango da AEDko Ludotekako begirale berria. San Viatorren Ingurugiroko Teknikarirako ikasi du eta LarunbatEero eta Udalekuetan ibilitakoa da.



Almeneko 5. eta 8. mailako 80 ikasle eta Batxilergoko 17 ikasle eta hiru irakaslek, Nafarroako Goñin pasazenuten Pazko astea, apirilaren 13tik 17ra. Eta denetatik egitea tokatu zitzaien.




- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



**LORAMENDI  
KIROLAK**

**HELDU DA UDABERRIA!**

**MANGO**



**MANGO** Postas, 5 eta 5 bis. GASTEIZ Tfnoa: (945) 23 04 48 / V. O. VERSION ORIGINAL Alava Jenerala, 16 GASTEIZ Tfnoa: (945) 13 33 39



# Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



## Final laurdenen atarian

*Alea jacta est.* Zorteak ez dauka bueltarik.

Hasi 72 hasi ziren, baina dagoeneko bederatzi talde geratzen dira bakarrik txapela irabazteko aukerekin.

Eta domeka eguerdirako zortzi izango dira.

Final laurdenen atarian, sei dira txartela poltsikoan daukaten ekipoak:


Zuloak, Argi Ibili, Suministros, Zistizasta, Adelaida eta Mikelos.

Laugarren multzoan dira kontuak, kalkuladoren dantza! Sailkapen buruan

bi talde aurkitzen ditugu, Trikiti eta Leintz garagardotegia, biak bederatzi puntuz... eta domekan elkarren kontra jokatu behar!

Enpatatzen badute, biak aurrera, baina domekan bata irabazi ezkerro, bestea atento ibili behar, Herediatarrak errebufoan baitatoz azken aukeraren bila.

Ia ba, 93ko txapelketa azken txanpan sartu da. *Ladies and gentlemen*, jaun-andreok, aukeratu zuen favoritoak. Final laurdenak dira. Gora Zaldibar!

 **AMAJUR**  
taberna

EGUNEKOMENUA • AFARIAK • JAUNARTZEAK

Zuloaga, 6 Tfnoa: 77 04 79 ARRASATE

 **Bodisca s.l.**

Zeramikako pabimentu eta  
gaineztaldurak


Otalora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULOAK	6	5	1	0	32	8	<b>11</b>
ARGI IBILI	6	5	1	0	39	11	<b>11</b>
ARRASATE KIR.	6	4	0	2	24	18	<b>6</b>
NUEVO TABERNA	6	3	1	2	23	18	<b>7</b>
ARRASATE KRIST.	6	2	1	3	18	19	<b>5</b>
TXOKO TABERNA	6	2	0	4	12	26	<b>4</b>
PEPELUS	6	1	0	5	14	37	<b>2</b>
LOS DIMY	6	0	0	6	15	40	<b>0</b>
GUZTIRA	48	22	4	22	177	177	48

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	6	6	0	0	34	10	<b>12</b>
ZIZTI-ZAZTA	6	5	0	1	32	11	<b>10</b>
DIEGO ANTONIO	6	4	0	2	28	18	<b>8</b>
NOSKI	6	3	0	3	36	26	<b>6</b>
KAIXO LENIZ	6	3	0	3	28	29	<b>6</b>
LORATEGI POTROAK	6	2	0	4	19	24	<b>4</b>
MONTERREY TAB.	6	1	0	5	9	33	<b>2</b>
PUBLICOOP	6	0	0	6	8	43	<b>0</b>
GUZTIRA	48	24	0	24	194	194	48

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ADELAIDA	6	5	1	0	25	7	<b>11</b>
MIKELOS	6	4	2	0	13	7	<b>10</b>
NOTXINGAN FLO.	6	4	0	2	19	14	<b>8</b>
GURE LEKU	6	2	1	3	23	16	<b>5</b>
ZULUS	6	1	3	2	18	19	<b>5</b>
DANOK LAGUN	6	2	1	3	14	16	<b>5</b>
JODO FLORO	6	1	1	4	13	22	<b>3</b>
BIZKORRAK	6	0	1	5	5	29	<b>1</b>
GUZTIRA	48	19	10	19	130	130	48

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	6	4	1	1	18	5	<b>9</b>
LEINTZ GARAG.	6	4	1	1	21	15	<b>9</b>
LOS HEREDIA	6	2	3	1	25	18	<b>7</b>
MOTZ	6	2	2	2	18	20	<b>6</b>
URMAY B. K.	6	2	2	2	15	15	<b>6</b>
KOXKAS	6	2	1	3	17	20	<b>5</b>
BETRAYER	6	1	2	3	18	22	<b>4</b>
LASO-ARREGI	6	0	2	4	12	26	<b>2</b>
GUZTIRA	48	17	14	17	144	144	48



**JESUS MORENO (Zaldibarko arbitroa)**

Urte askotan Mondrako jokalaria, urtebete entrenatzaile eta Zaldibarko txapelketa hasi zenetik bertako arbitroa da Jesus.

Arbitro denetik inoiz ez da egon talde baten alde, "niri berdin berdin zait batek zein besteak irabazi, intentzio onekin jokatzaren badute behintzat".

Finalean nortzuk egongo diren esatea ez da bat ere erraza,

hala ere, Jesusek bere pronostikoa aurreratu digu, "nire ustez Suministros Ugarte eta Zuloak taldeek posibilitate handiak dituzte finalera heltzeko baina finaleko egun horretan, asko jokatzaren dute eta ezin daiteke jakin zer gertatuko den".

Txapelketaren barruan badaude kiroltasunik gabe jokatzaren dutenak eta denbora pasa

baino, txapelketa gauza pertsonal bezala hartzen dutenak, eta alde horretatik azaldu digu Jesusek bere kexa handiena. Maila batean partehartzea eta laguntasuna bultzatzea da irtenbidea, bere ustez. "Bertan sartuta daudenek ere, intsultoak bakarrik entzuten dituzte askotan, maila horretatik errespetoa eta laguntasuna eskatuko nieke besteek"

**ILUNTZ**  
taberna  
Arrasate



**LIZARRA**  
taberna

Leintzibar kalea, 2 ARRASATE  
Tfnoa: 79 72 35

Zarugalden...  
**BRANKA**  
taberna



**BELARRIRA**

◆ **Fasea amaitzear**

Bigarren fase hau asteburu honetan bukatzen da, beraz, une erabakiorrak iritsi dira Zaldibarreko txapelketara. Aipatu beharra dago joan den urtean bezala, aurten final laurdenak partidu bakarrera izango direla, eta final erdiak bi partidutarā. Finala ere, iaz gertatu bezala, partidu bakarrera izango da.

◆ **Afarien zozketa**

Aste honetan, ATBko zozketan afariak irabazi dituzten bi taldeak Los Heredia eta Adelaida-Haizea izan ditugu. Beraz, on egin dagiela bie, eta gogoratu asteburu honetan bertan joan beharko dutela afaltzera.

◆ **Interesgarriena k**

Asteburuko partidurik interesgarrienak aipatu behar, eta hona hemen iradokizunak: Trikiti - Leintz garagardotegia, Los Heredia - Urmay Burger King, Suministros Industriales Ugarte - Zisti Zasta eta Argi Ibili - Zuloak.

**Posible izango ote den iazko finala errepikatzea? Horixe da asteburu honek planteatzen digun galdera interesgarriena.**

**Argi Ibilikoek bide ona daramate; Luma, Ramon eta konpainia zortzi**

**onenen artean daude aurten ere. Herediatarrak, berriz, airean; D multzoko hirugarren postuan daude, azken ihardunaldiaren zain. Pasako ote dira Pako eta bere taldea?**

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Argi Ibili 13 .....	Los Dimy 3
Zuloak 4 .....	Arrasate Kristaldegia 4
Pepelus 5 .....	Arrasate Kirolak 7
Txoko taberna 3 .....	Nuevo Taberna 9

**B TALDEA**

Sum. Ind. Ugarte 10 .....	Publicoop 1
Zisti Zasta 3 .....	Monterrey taberna 0
Noski 10 .....	PKaixo Leniz 3
Lorategi Potroak 3 .....	Diego Antonio 5

**C TALDEA**

Mikelos 1 .....	Gure Leku 0
Adelaida Haizea 8 .....	Jodo Floro 2
Zulus 2 .....	Notxingan Florest 5
Bizkorrak 0 .....	Danok Lagun 4

**D TALDEA**

Trikiti 3 .....	Koxkas 1
Leintz Garagar. 7 .....	Motz 4
Betrayer 3 .....	Urmay B. K. 3
Los Heredia 12 .....	Laso Arregi 3

*Trikiti* S. L.

**SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA**

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 1**

**Zaldibar**

- 08.45 Betraye / Iaso Arregi
- 10.00 Jodo Floro / Gure Leku
- 11.00 Noski / Diego Antonio
- 12.00 Adelaida Haizea / Mikelos
- 13.00 Pepelus / Bar Nuevo
- 14.00 Arrasate Kristaldegia / Los Dimy
- 15.00 Txoko tab / Arrasate Kirolak
- 16.00 Lorategi Potroak / Kaixo Leniz
- 17.00 Bizkorak / Notxingan Florest
- 18.00 Danok Lagun / Zulus
- 19.00 Koxkas / Motz

**Igandea 2**

**Zaldibar**

- 08.45 Monterrey tab / Publicoop
- 10.00 Sum. Ind. Ugarte / Zizti-Zazta
- 11.00 Trikiti / Leniz Garagardotegia
- 12.00 Zuloak / Argi Ibili
- 13.00 Los Heredia / Urmay B. K.

# URIBE AUZOKO FUTBITO TXAPELKETA

<b>a</b> taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald	Alde	Aurk.	Guzt.
ANBOTOSTE K. T.	4	3	0	1	10	8	<b>6</b>
GANBELAS	4	2	1	1	17	3	<b>5</b>
POTOSORRI	4	2	1	1	10	12	<b>5</b>
KE OXTIAS!	4	1	2	1	12	6	<b>4</b>
TABERNIKOLAS	4	1	2	1	12	8	<b>4</b>
EZKINAKO HONTZAK	4	0	0	4	4	28	<b>0</b>
GUZTIRA	24	9	6	9	65	65	24

<b>b</b> taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald	Alde	Aurk.	Guzt.
ALPARGATA TURBO	4	4	0	0	14	7	<b>8</b>
SOKOAKOAK	4	3	0	1	13	10	<b>6</b>
AUF THEM KOFFER	4	2	1	1	5	4	<b>5</b>
LAUTHERBRUNNEN	4	1	1	2	9	10	<b>3</b>
BAYERN PROMESAS	4	0	1	3	7	12	<b>1</b>
BAYERN DE LENIZ	4	0	1	3	6	11	<b>1</b>
GUZTIRA	24	10	4	10	54	54	24



Uribeko futbito txapelketan aste honetan amaitzen da lehen fasea. Hurrengo astetik aurrera final laurdenak jokatuko dira. Hauek, final erdiak bezala, bi partidutan jokatuko dira, eta finala, berriz, partidu bakarrean.

## *Trikipublik*

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
  - Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

## TXUS CONGIL

# Zer dago droga trafikoa-aren atzean?


**Txus Congil jaiotzez her-naniarra da, berrogei urte beteta dauzka eta ikas-ketaz irakaslea da. Ha-maika urtez bizimodua eskolak ematetik atera zuen, Hernaniko Udale-txean Drogomenpekota-sunen aurkako Zerbi-tzuko teknikari postua eskuratu zuen arte. Dro-gen munduaz duen eza-gupenez baliatuta, orain droga-trafikoari buruzko hitzaldiak ematen aritu da.**

— Drogomenpekotasun arazoak lantzen ari zara, zergatik?

— Euskal Herrian eraso desberdinak daude, hizkuntza aldetik, errepresio aldetik... eta baita drogomenpekotasunen ondorioz sortutako marginazioa, toxikomanoen ugaritzea 1978-79. urteetan, sobredosis kutsatutako drogak eragindako lehen toxikomanoen heriotzak... eraso guzti horri erantzun bat ematearren sartu nintzen honetan. Nire lana, prebentzioaren aldetik profesional modura Hernaniko Udaletxean egiten dut; lan militantea, berriz, Aska-gintzari eskaintzen diot.

— Eraso hitza aipatu duzu; planifikatutako zerbaitetaz ari zara?

— Sistemak beti erabili du droga, kontrol bat izateko eta



Drogarik gabea ez, baina drogomenpekotasunik gabeko gizartea nahiko luke Txus Congilek.

jendeak aldaketen eragile izan daitezkeen bide alternatiboak hartu beharrean, bide pasiboak har ditzan, azken finean ebasioaren bideak direnak.

Tabakoa, farmakoak eta alkohola aspalditik daude hemen eta gizarteak onartuta dauzka nolabait, baina duela urte batzuk droga berriak sartu zi-

tuzten, cannabis-aren deribatua eta heroina. Oso garbi dago eta gainera onartuta, lehenengo drogen-sareak polizia batzuren eskuetan zeude-

la, eta poliziaren atzetik beti dago sistema.

**— Eta trafikoaren atzean zer dago?**

— Trafikoaren atzean interesak, handiak eta inportanteak, ekonomikoak eta politikoak. Interes ekonomikoari begiratuz gero, argi dago banku batzuk drogaren diruen zuritzean zeresan handia dutela, baita ostalaritza eta inbularien atzean dauden zenbait enpresarik ere. Interes politikoari dagokionez, drogen bidez gizarte-kontrol zabalagoa lortu nahi izaten da, horregatik estatuek eta estatuen arteko harremanek bide penalizatzaileak aukeratu dituzte, kontsumoaren edo drogaren artisaun-sareen aurka, baina sarre profesionalak eta benetako trafikanteak lasai-lasai ibiltzen dira, zigorik jaso barik. Polizien sektore jakin batzuen laguntza barik, hori ezinezkoa izango litzateke.

**— Beraz, droga trafikoari aurre egiteko, despenalizazioa da bidea?**

— Beno, oso zaila da horri erantzutea. Kontu handiz ibili behar da sistemak berak joku hori planteatzen ez dezan. X da gaizki dagoena, beraz egin dezagun Xen aurkakoa. Drogaren trafikoarekin bukatzeko bide bakarra despenalizazioa edo legalizazioa izan daitekeela plateiatzea, ideia arinegia da. Guk penalizazioaren aurrean alternatiba ez penalizatzailea proposatzen dugu, drogomanpekotasunaren fenomenoak alternatiba asko baitaizka: araudi-erregulatzaileak jarri, hezkuntzari begiratutako prebentzio lana egin, jendea kontzientziatu droga kontsumitzen badu nola erabili jakin dezan, bizi-baldintzak hobetu... azken finean, gizarte batean bizi izaten jakitea, nahiz eta gizartearen drogak eduki, hori da denborarekin lortu behar duguna.

**— Droga-sareak profesionalak izanda, poliziak badu zer eginik?**

— Borondate politikoaren falta somatzen da droga trafikoaren aurka. Beharrezko mediorik ez da martxan jartzen eta Estatuak egiten duen gauza bakarra, kontsumitzaileak kontrolatzeko polizia asko jartzea da. Gure ustez, poliziak helburu bat bakarrik betetzen du: gizartearen kontrola, baina ez drogomanpekotasunen aurkako helburua. Ondo prestatutako polizia jarri beharko lukete, ekonomistaz osatuta, bide zuriaren jarraipena egiteko, dirua nondik nora

rioz, argi dago ez dagoela borondaterik, helburua ez dela drogomanpekotasunaren aurkako borroka egitea, gizartearen kontrolatzea baizik.

**— Zenbat diru mugitzen du droga trafikoak?**

— Oso zaila da hori jakitea, baina badaude datu interesgarri batzuk, esate batera, armen-trafikoaren ondoren, droga-trafiko munduko bigarren negozioa dela. Interesgarria da esatea nekazari Colombiar edo Boliviarrak batek Cocainarekin egiten duen lanaren ordain gisa pezeta bat jasotzen badu, drogaren transformazioa egiten

duenak 60 PTA jasotzen dituela eta trafikoa egiten duenak, berriz 100 PTA. Oraindik, nazioartean, produktu kimikoak mugatu eta kontrolatzeko akordioak ez dute lortu, droga transformatzeko behar diren produktuak hain zuzen ere; oraindik, estatu askok, hori merkatu librearen legean sartzen dela diote eta estatu horiek eurak Colombia edo Boliviako cocainaren aurkako neurriak eskatzen ari dira. Beste datu bat: munduko hirugarren negozioa, farmakoen industria da, eta drogaren trafikoaz oso lotuta dago.



mugitzen den jakiteko. Drogen aurkako Estatu Fiskal guztiek gauza bera esan dute azken bileretan: edo drogaren aurka egiteko tresna gehiago ematen zaie edo dimisioa aurkeztuko dute. Ondo-

RTU 93-D

— Nondik dator droga Euskal Herrira?

— Droga bakoitzak bere bidea dauka. Heroina lehen Turkia, Libano eta Jugoslaviatik etortzen zen gehienbat, baina orain gehiago erabiltzen du Alemania eta Holandako bidea edo Bartzelonatik, Mediterraneoan barrena.

Cocainak tabako kontrabandoaren bidea erabiltzen du, batez ere, beraz, galiziatik eta Portugaldik dator eta hemendik Europa osora zabalitzen da. Beste bide bat Barajasera iristen diren balija diplomatikoak dira.

Hatxisarena garbi dago, Afrikatik, baina hori ez da hain trafikoko profesionala, artisau-sareak izaten dira.

— Eta nola iristen da, hartu eta kontsumitzeko moduan?


— Guk dakigunez, hatxisa nahiko eginda etortzen da; speed-a, berriz, industria farmazeutikoak eginda iristen da, esnifatzeko edo pastila moduan. Heroina eta cocainarentzat, azkenik, laborategi bereziak daude hori prestatzeko, cocaina gehiena eginda iristen bada ere.

— Droga-trafikoan askotan ematen da kontsumitzaile edo trafikatzailerik txikia eta polizia-aren arteko harremana, nolakoak izaten da?

— Gure datuen arabera, droga-trafikanteen sareak eta polizia-aren konfidente sareak, Guardia zibilarenak batez ere, oso antzerakoak dira, ia ia berdinak. Euskal Herrian, abertzaleen aurkako borrokatik, dena justifikatzen dute. Drogomenpekotasunaren arazoaren aldetik begiratuta, arazo politikoetan sartu barik, bere burua legaltzat duen estatu batek ezin du neurri ilegalik justifikatu.

— Gartzelek eten dezakete drogaren-saririk?

— Estatu osoko gartzeletako presoen %70a, drogo-



Droga-trafikoari buruzko hitzaldiak ematen aritu da Txus Congil.

menpekotasunarekin zerikusia duten arrazoiengatik dago barruan. Kontsumoari buruzko penalizazioa kenduz gero, %50a kalera irtengo litzateke eta kontsumitzaileei eskua luzatu behar zaie; gertatzen da kontsumitzaile askok droga lortzeko, txapitxeatu egin behar izaten duela. Sareen arduradunen aurka egin behar dugu, bestela drogaren aurka egiteko Estatuak borroka hori justifikatzeko polizia gehiago jarriko du kalean, eta gure ustez hori ez da irtenbidea, oztopoa besterik ez da.

— Imajina daiteke drogarik gabeko gizarterik?

— Ez dut drogarik gabeko gizarte bat ezaguterik nahi, gure borroka Euskal Herri libre baten aldeko baita. Euskal Herri libre bat pertsona libreek osatu behar dute,

eta zer kontsumitu erabakitzeko gai izan behar dugu. Euskal Herri libre bat nahi dut drogomenpekotasunik gabe, eta ez drogarik gabe. Droga guztien erabilera erregulatu behar dugu: alde batetik, ez promoziotik eta ez publizitaterik; bestetik, drogen salmentaren erregulazioa. Esperientzia piloto bat martxan jartzea gustatuko litzaidake, alkohola, tabakoa eta hatxis-arekin esate batera, publizitaterik ez egin eta kontsumoaren erregulazioa lortu. Penalizazioa oztopo bat besterik ez da; erregulazioa eta normalizazioa dira bidea gure ustez, eta hori demostratu egin behar dugu; alkohola eta tabakoaz egin daiteke esperientzia, bakoitzak neurtu beharko du bere kontsumoa eta besteena errespetatu; autokontrola, labur esanda, hori da irtenbidea.

◆ “Euskal Herri libre bat nahi dut, drogomenpekotasunik gabe eta ez drogarik gabe”

◆ “Azken finean, gizarte batean bizi izaten jakitea, nahiz eta gizartean drogak eduki da guk lortu nahi duguna”

◆ “Armen trafikoaren ondoren, droga-trafiko munduko bigarren negozioa da”

◆ “Poliziak helburua bat du gure ustez: gizartearen kontrola baina ez drogomenpekotasunaren aurkako kontrola”



Javier Ortega arkitektoak idatzitako proiektuaren fotomontaia.

## Uherkapeko frontoia, pilotazaleen ametsa

**Argi** dago uherkapeko frontoia herriko pilotari eta pilotazaleen aspaldiko ametsa dela. Dirudenez momentuz amets horrek itxoin egin beharko du, ordea.

Maldako arazo latzak medio, oraindik gaur obrak ez dira hasi. Horrek ez du esan nahi proiektua alde batera utzi denik; udaletxetik adierazitakoaren arabera, alderdi politiko guztiak bat datoz malda ondo ziurtatu bezain laster hasi beharko direla lanak.

Halere, frontoiak aipamen sinbolikoa dauka bakarririk aurtengo aurrekontuen zirriborroan: pezeta bat.

### Dexente garestiago

Bere garaian frontoiaren

eraikuntza Tecsá enpresari adjudikatu zitzaion, 306 milioitan. Kostu guztia, gainera, Udalaren kontu, ez baitago gainontzeko Erakundearen dirulaguntzarik.

Zifra hori mahai gainean jarri zenetik hona hiru urte joan dira, eta beraz, hasierako 306 milioi horiei BEZA gehitzen, eta IPCa, eta... auskalo bidean obra zenbat garestitu den!

### Proiektu borobila

Javier Ortega arkitekto bilbotarraren diseinuaren arabera, denetik egongo litzateke frontoi berriari: 1.100 ikuslerentzako armailak, kantxa printzipala, hiru edo lau frontoi txiki, gimnasioa eta goiko aldean taberna.

Kokapena ere ezinhobea da, herriaren erdi-erdian.

### Iturripe zaharrea

Baina proiektuak proiektu, mondragoeko pilotariak Iturripe zaharrea segitzen dute, pozik aurtengo negua ez delako hain euritsua eta gogorra izan!

Arrasaten, zaharrenak ere ahaztuta dauka herrian noiz jokatu zen azkenengo aldiz profesionalen arteko partidua.

Beraz, oraingoan ere urrutitik ikusi behar azken boladan ze eboluzio eta erreboluzio ederra bizi izan duen gure betiko pilotak.

Uherkapeko frontoia. Beteko ote da noizbait Arrasateko pilotazaleen ametsa!

## LABURRAK

### Atletiko taldeak urteko balantzea egin du

Arrasate Atletiko Taldearen aurrikusitako diru-sarrerak iaz baino 300.000 PTA gutxiagokoak izango dira, kirol taldeak joan den ostiralean egin zuen urteko batzarrean agerian jarri zenez. Subentzio ofizialak txikitu egin dira, eta kanpora egiten diren irteera ugariak direla eta, gastuak ere gora doaz. Honi, gainera, iazko denboraldian izandako 114.000 PTAko defizita gehitu behar zaio. Beraz, egoera ekonomikoa zuzentzeko, diru-iturri berrien premian dago taldea, eta horregatik antolatuta dira zozketak. Biltzarrean azaldutako beste kezka bat Mojategiko atletismo zelaiaren atzerapenaren ingurukoa izan zen.

Kirol konpetizioaren arloan, joan den asteburuan taldekako Gipuzkoako 1. mailako txapelketan hartu zuen parte Arrasate Astore taldeak. Azkenean 5. geratu zen Arrasate, baina kontuan hartzekoa da baja garrantzitsuak zeuzkala taldeak: Jose Antonio Gay operatu-berri, Jose Antonio Fuentes soldadutzan eta Javier Blanco ikasketekin hestu. Posturik onenak Aitor Arnaizek (2. 400 metrotan) eta Mikel Uribesalgok (3. luzeran) lortu zituzten. Talde txapeladuna Real Sociedad izan zen.

## TXOKO TABERNA

*Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak*

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bullegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 77 06 43 ESKORIATZA



**PENALTIAK**

● **Igandean Euskadi eta Cantabriako futbito selekzioek launa bukatu zuten Iturripen, eta beraz emoziorik ez da faltako bueltako partiduan. Raul Alustiza Euskadiko selekzionadoreak Arrasateko taldeko Txarrantxa jokalaria konbokatzen zuen, baina lesio bat medio, pare bat minutu jokatu zituen bakarrik. Ia klasifikatu eta aukera berriak edukitzen dituen!**

● **Txanton-Boys rugby talde mitikoak seriooki ekin die entrenamentuei, maiztaren 8an, larunbata, Garagartzako zelaian Arrasate Kirolak rugby taldearen kontra jokatu duten desafioa prestatzeko. Entrenamentu horiek astearte eta ostegunetan izango dira, Musakolako kiroldegian, 7.30etatik aurrera.**



**Igoerara bidean, bizkaitarrak zain**

Lau ihardunaldi falta zaizkio Mondrari ligan, Bizkaiako lau talderen kontra jokatu beharreko partiduetan. Une honean arrasatearrak sailkapenean 3. dira, eta beraz datu bat ukazina da: jokuan egongo diren zortzi puntuak lortu ezkerreko igoera fasea goaz.


Ez da lan erraza izango: Gernika taldearekin hemen, Durangora gero, Bermiorenkin hemen eta Mungian bukatu, hori papeleta, hori!

Atxabalpe inaguratu zenetik Mondra taldeari hauxe falta izan zaio: liga bukaera interesgarri bat, emozioa, zirrara... printzipioz, beraz, ia domekan zelaia ondo betetzen dugun, Gernikarrak matxakatu, eta gero etorriko dira gerokoak: igoera fasea, hain zuzen.

Baten parra bi baietz: Mondra Play Offera doa!

**Mondra azken txanpan...**

Real Unionen kontra jokatu ondoren bajoia etorri, baina serio ari gara, belozidada landuz, eta taldea ondo ikusten dut orain, indartsu. Sodupe eta Zornotzaren kontra hutsegindako okasioak sartzen baditugu, Play Offera goaz, seguru.



**J. M. OTADUI  
"TXOSA"  
Mondrako jokalaria**

**EMAITZAK**

**Futbola**

3. maila: Zornotzak 2-Mondrak 2  
Preferente Araba: La parrilla 2-San Andres 1  
Preferente Araba: San Andres 0-Alaves 3  
Jubenilak, ohorezkoa: Mondra 3-Aurrera 1  
Jubenilak, 1. maila: S. Ignazio 3-San Andres 1  
Jubenilak, 2. maila: Arrasate 5-Texas Lasarte 2  
Kadeteak, 1. maila: Arrasate 3-Elgoibar 1  
Kadeteak, 2. maila: Arrasate 3-Aitzgorri 0  
Haurrak: Arrasate 2-La Salle 0  
Txikiak: Arrasate 6-Soraluze 1

**Hurrengo partidua**

3. maila: Mondra-Gernika, domekan, 5etan  
Preferente Araba: San Andres-S. Ignazio, larun, 5etan  
Jubenilak, ohorezkoa: Beti ona-Mondra, Oreretan, larun, 3.30etan  
Jubenilak, 1. maila: San Andres-Abetxuko, domekan, 12etan  
Jubenilak, 2. maila: Urki-Arrasate, Eibarren, larun, 10.15etan  
Kadeteak, 1. maila: Aloña-Arrasate, Oñatin, ostiralean, 6etan  
Kadeteak, 2. maila: Urki-Arrasate, Eibarren, larun, 9.30etan  
Haurrak: Real Union-Arrasate, Irunen, larun, 12etan  
Txikiak: Aloña-Arrasate, Oñatin, larun, 11.30etan

**Saskibaloia**

Senior gizonetakoak: Patronato 99-Arrasate 58  
Senior emakumezkoak: Arrasate 68-Gernika 70  
Jubenilak, mutilak: Arrasate A 113-BKL 63  
Jubenilak, neskek: STL Enbeita 37-Arrasate 56  
Kadete mutilak: Iraurgi 40-Arrasate A 41  
Kadete mutilak: Arrasate B 63-Zarautz 45  
Kadete mutilak: Larramendi 48-Arrasate C 45  
Kadete neskek: Arrasate A 39- Eskoriatza 32  
Kadete neskek: Arrasate B 42-Almen B 34

**Hurrengo partidua**

Senior gizonetakoak: Arrasate-Caja Vital, Musakola, larun, 6etan  
Senior emakumezkoak: CBN-Arrasate, Iruñan, larun, 8etan  
Sub 23: Arrasate-Aralar, Musakolan, domekan, 12etan  
Jubenilak, mutilak: Itzurun, Arrasate A, Zumaian, domekan, 12etan  
Jubenilak, mutilak: Arrasate B-Zahor, San Viatorren, larun, 4etan  
Jubenilak, neskek: Arrasate-Etxadi, Musakolan, domekan, 12etan  
Kadete mutilak: Arrasate A-Don Bosco, Musakolan, larun, 4etan  
Kadete mutilak: Aldapeta-Arrasate B, Donostian, larun, 11etan  
Kadete mutilak: Arrasate C-Askatuak, San Viatorren, larun, 6etan  
Kadete neskek: Almen-Arrasate A, Almenen, larun, 4etan  
Kadete neskek: Ordizia-Arrasate B, Ordizian, larun, 11etan

**Eskubaloia**

Seniorrak: Arrasate 11-Aloña Mendi 17  
Juniorrak: Arrasate 25-Jauja 24  
Jubenilak: Jauja 22-Arrasate 17  
Kadeteak: Zarautz 20-Arrasate 11

**Hurrengo partidua**

Seniorrak: Jauja-Arrasate, Deban, domekan, 11etan  
Juniorrak: Arrasate-Pulpo, Iturripen, domekan, 12etan

**Pilota**

(Herriarteko txapelketan)  
Infantilak: Eibar 10-Arrasate 18  
Jubenilak: Eibar 4-Arrasate 22  
Nagusiak: Eibar 5-Arrasate 22

**Hurrengo partidua**

Eskuz: domekan, 11etan, Iturripen  
Herramintza: domekan, 11etan, Antzuolan

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

**Onduline TXOMIN HERIZ**




eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18  
ARRASATE



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten  
hasiera baino ez da,  
profesionaltasun garbiko  
bidean.**



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresa-  
gintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.  
Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta  
aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak  
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-  
biko bidean.

# Epelen berriz bainatzerik ez!

**Betiko** arazo ekologikoetatik at, azpiegitura handi eta faraonikoak proposatzen dituzte gure bailararako. Besterik beste, Maltzaga-Urbina autopista, abiadura handiko tren, Durango-Beasain korredorea...

Oraingo honetan, Epeletik pasatuko den Durango-Beasain korredoreaz jardungo gara. Errepide honen zati bat, Arrasate eta Bergaratik pasa eta kanpantzarreko tuneleraino helduko da. Errepide berri hau eraikitzeke, hamahiru metro-tako berdinketa, eta altueran, hogeitamabost metrotako desmontaketak egin beharko dira. Hau ez ezik, Epelen eraiki berria den zabortege bat dago, eta gerorako, Mankomunitateak, Deba Behera, Deba Garaia eta Durangoalderako izango den errausketa-gune bat egitea proposatzen du

inguru horretan.

Azter dezagun Foru Aldundiaren enkarguz egindako "ingurugiro-inpaktu ikerketa". Txostenaren puntu inportanteenak, honako hauek dira:

a) Epeleko errekarri buruz, ondo dagoela dio, erriberako zuhaitz eta landareez inguraturik, bertako urak garbi eta hotzak direlarik. Bestalde, errekatxoaren azken zatian gizakion eragina nabaria dela aitortzen du, batez ere, zabortegeirako eraiki berria den errepideak erreka ertzetako landaretza suntsitu duelako. Laburtuz, Epeleko errekarri egoera ekologikoa nahiko ona dela, irakurtzen diren indizeak kontutan hartzen baditugu, oxigeno konpurua, animalien ugaritasuna eta ertzeetako landaretza, besteak beste. Epeleko erreka, gaur egungo

egoera ekologikoa kontutan hartuta, izoki eta amuarrain populazioak mantentzeko gaita da.

b) Bestalde, Epeleko errepideari buruz zera dio: "Eraikitzea honek, errekarri egoeran izango duen eragina, zabala, iraunkorra, itzulezina eta berreskurazina izango da. Erreka, egoera kritiko batean geratuko da".

c) Inpaktoa neurtzerakoan bailararen egoera kontutan hartu behar dela dio, termino hauetan: "Bailara hontako jende kopuruagatik, ingurunea oso egoera larrian geratu da, errekek batez ere. Oso interesgarria litzateke horrelako errekek mantentzea, ur-emanen eta animalien kopuruak erregulatuz, bestela, hauen errekupeketa oso zaila gertatuko da."

Inork alarmistak garesta


esan ez dezan, egindako txostena transkribitu dugu.

Gure ustez, kotxeen enpresa multinazionalen interes ekonomiko eta erakunde publiko handikeriaren eskutik datorkigu gaurko garraio pribatuaren goraitzea, eta ondorioz, errepide zabal eta handiak, aparkaleku berriak, eta abarreko luze bat egin behar. Berriek dakarkiguten arazo ekologiko itzulezina inor jabetzen ez dela pentsa daiteke. Ondorio zuzenak, kutsadura eta desoreka handiagoa. Hain zaila ote da ulertzea gaurko lurralde antolatetako ez duela ez buru ez hankarik? Ez ote dago diru publikoak gastatzeko egin behar hoberik? Zergatik ez da diru kopuru hau erabiltzen Deba ibaia garbitzeko?


**MIKEL OLABE**

## Zenbait datu


HERRIALDEEN AZALERA



ERREPIDE-SAREA



IBILGAILU-PARKEA



**Grafiko** hauek, euskal urtekari estatistikoa irakurtzen badugu, 1990. urteko errepide eta ibilgailu parkearen egoera adierazten dute. Errepide-sarea definitzerakoan, autopista, autobia, autobus, kamioi, nahiz kotxeak dira kontutan hartu direnak. Datu hauen irakurketa adierazgarriena zera da: ibilgailu-parkea Bizkaian kontzentratzen dela, ia lurralde txikiena izan arren. Urtekari estatistikoa irakurtzen dugun

bezala, 325.972 kotxe dira Bizkaian zehar egunero handik hona dabiltzanak. Honek ondorioz larrienak:

- zarata-maila eutsiezina.
- keen kopuru arnasezina.
- trafiko-istripuak kontrolgabekoak.
- ingurune naturalen desagerketa.

**XABIER ARREGI**



Zelaian belarra hartzea sinbolikoa izan da.

## Zaldibarko zelaia

**1448ko** ekainaren 23a, erreketak famatua izan zeneko, Mondragoeren historiako egunik tristeena da askoren ustetan, eta arrasto batzuk ere utziak ditu egun hartako gertaerak herrian, gaur egun desagertuta dauden arren.

Oñatik konteak, Mondragoeko herria nolabait konpentsatu nahirik, lur batzuk eman zizkion. Zaldibartik gaur egun herri bien arteko muga dagoen lekurainoko sailk utzi zizkion gure herriari.

1449ko abuztuaren 7an, Juan II.a erregeak indultatu egin zituen buruzagi gan-

boatarrak, eta moruen kontrako gerran lau urtez aritzeko zigorra ezarri. Pedro Velez, beraz, 1455ean hil zen Medina del Campon.

XX. mendearen lehen urteetara arte, Mondragoe-

.....

***Mondragoeko alkateek kargu-hartzea egiten zutenean, Zaldibarko zelaira joan eta belar zati bat hartzen zuten***

ko alkateek kargu-hartzea egiten zutenean, Zaldibarko zelaira joan eta belar zati bat hartzen zuten, Oñatik emandako lur haiek Mondragoeren mende zeudela sinbolizatuz bezala. Erreketa eta suntsipenaren kalte-ordain moduan emana zuen Oñatik herriak lur hori.

Jose Letonak dioenez, Bañez de Artazubiagarren dorretxea, geroztik Zentro Katolikoa izan zena zen. Erreketaren ondoren berre-raiki egin ei zen, eta etxearen harmarriak ere honela zioen: "Quemada en aras de la libertad de nuestra estirpe".

## SUTONDOAN

### AZKUAGA-MENDIKO JENTILAK, MUSAKOLARRAK ETA GASTEIZTARRAK (I)


*D. Jose Luis Iñarra jaun agurgarriari, itzal handiz, bihotzetik bihotzera.*

Inoiz San Juan goizen baten gizaundi eta buruhandiei begira hortzetatik adurra dariola inor ikusten baduzu, ez batere harritu, hori neu naiz eta.

Ni jaio nintzen etxetik 300 bat metrora hilko zen Ilargi, azkenengo jentil arrazako andrea, Musakolako Zeleta base-rrian. Etxe onera ezkontzaz etortzeko kristautzerakoan Erroxa izenarekin bataiatu bazuten ere, lehenengo izenez deitzen zioten. Honek, Arane-Beheko basetxe aurrean, erreka eta bidea bakarrik tarte zirela, goldaketan ari zenean eta aizkora, mailu edo zerbaiten beharrean aurkitzen zenean, gure etxean eskatzen omen zuen. Gero zeregina amaitzerakoan, eskerrak emanez, "hor dihoakizute" esan eta aurreko bihartzaren eta erdikoaren tartean aizkora edo mailuka-kirtenari apatx eragin-da, gure etxearen teiltatuz gaindik gure etxeraino jaurtitzen zioten. Nola ez naiz ba liluratuko San Jaunetan gizaundiari begiratzean, aldi bateko jentilen antzeko irudiak badira eta haien eta honein artean ez badago beste alderik, honeik txilbor tokian lehiatilatxo bat izatea besterik?

(Jarraituko du)

**ARREGITAR TIBURTZIO**



**EGVZKIGRAF**

**Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia**

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE



utik, ezkerretik hasita, **Angel Dominguez "Toni"**, **Juan Luis Elizaran "Irura"**, **Rafa Fernandez Aresti**, **Karmelo Amozarrain**, **Juan Kruz Uriarte "Kapullo"**, **Jesus Agirreurreta "Kone"**, **Jose Mari Fernandez** eta **Luis Mari Mora "Navarro"** dira. Makurtuta, **Gerardo Fernandez "Gerundio"**, **Juan Mari Roa**, **Julio Marañon "Azurra"** eta **Roberto Urzelai**. Kuadrila honetan beste horrenbeste baino gehiago falta dira, 1959ko maiatzaren 3an, txikiteoan ari zirela ateratako erretratua da hau.

Ferrerias kalean, **Etxeberriaren** txaletaren aurrekaldean atera zen, "Ruso" tabernatik irtenda. Kuadrila txikitero honek, orain egiten den errekorrido bera egiten zuen, "Antxola", "Lorenzo" eta "Caserio" tabernak, orain desagertuta daudenak, ere bisitatzeko zitzutelarik. Eguerdian denek ardo zuria edaten zuten, eta arratsaldean beltza.

Argazki hau baino urte batzuk lehenago, gogoratzen dutenez, prezioa 45 errieletik 50era igo zelako, xemeiko bat garestitu zelako, hiru hilabe-

teko boikoa egin zieten tabernei txikitero mondragoetarrak, eta Zentrora, Zirkulora, Caza y Pescara eta Errasti tabernara joaten ziren txikiteoan. San Juanak ere tartean jausi ziren. Kuadrila asko, bota-ardaua hartu eta joaten zen tabernen aurrekaldera, eta bertatik edan. Baina apurka apurka "klaukatu" beharra izan zuten txikiteroek, eta hasieran taberna batzutan sartzen ez ziren arren, azkenean gauza bere onera etorri zen. Txikiteoa estazino pareko "Etxazuri" eta "Txapel" tabernaraino iristen zen.

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**UGARAN**  
jatetxea

Arreta handiko  
sukaldea  
Giro abegikorra

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- Donostian gela bat edo pisua behar da. Tfnoa: 79 47 09.
- Bi oheko gela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Pisua edo logela behar da Arrasaten. Premia dut. Tfnoa: 88 90 59.
- Donostian hiru hilebetetarako pisu konpartitu bat behar dut. Tfnoa: 71 41 21.

**Lana**

- Leintz Akademian alemanezko, ingelesezko eta italianozko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 81 30 eta 79 51 09.
- Esperientziadun neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: (945) 44 53 31. Aramaio.
- Inglesezko klase partikularrak ematen dira. Mailak: ertaina eta altua. Tfnoa: 79 20 64.
- Andra bat prest atarte, bulego eta lokal komertzialak garbiketako. Tfnoa: 77 09 56. Maribi.
- REM eta OHOKo klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 48 09. Itziar.
- Esperientziadun emakumeak umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.

- Neska euskalduna eta gaztea behar da umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 12 08.
- OHOKo zein ingelesezko klase partikularrak ematen dira (maila guztiak). Tfnoa: 79 45 60. Sonia.
- Ordenadoretan lanak egiten dira. 150 PTA orriko. Tfnoa: 79 13 26. Maite.
- Neska gertu dago umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 77 94. M<sup>a</sup> Eugenia.

**Salerosketak**

- Opel Corsa GT 1.300, SS-Z zuria salgai. Tfnoa: 79 42 78.
- Nintendo kontsola, eurokonektorea behar duena, salgai 6.000 PTA. Hainbat joku 3.000-5.000 PTA artean. Tfnoa: 71 40 19. Igor.
- Seat Panda, SS-0408-S, egoera onean salgai. Dei egin denda orduetan 79 86 75 tfnora.
- Bigarren eskuko mobil-home bat erosiko nuke. Tfnoa: 77 04 98.
- Seat 127, BI-K salgai 40.000. Dei egin goizez (945) 27 63 39 tfnora.
- Bost tokiko Adria markako karabana salgai. Bi urte ditu. Berogailu eta guzti. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 84 55.
- Nikon argazki makinarentzako duplikatzaile makroa salgai. Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 77 12 28. Jabiertxo.

- Egoera onean dauden Razesa markako bi bizikleta salgai. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 86 72.
- Vespa motorra SS-V salgai. Tfnoa: 79 91 41.

**Denetarik**

- Egunero Gasteiztik Arrasatera joan-etorria egiteko kotxean tokia behar dut. Tfnoa: 79 85 71.
- Leioara egunero joaten naiz kotxez. Zuk ere bidaia bera egiten baduzu, elkarrekin joan gaitetzke; kotxea baduzu hobeto. Dei egin asteburu eguerdietan 79 50 20. Imanol.
- Erretratuak zein edonolako irudiak egiten dira oleoz. Monterroi aurreko Uxarte gozodendan dago hainbat kuadro ikusgai. Informazio gehiagorako dei egin 79 83 76 tfnora. Pako.
- Musika taldeak behar ditugu lokala denon artean alokatzeko. Tfnoa: 79 13 26.
- Lasagari esker onez. Apa Lasaga! Lerro honein bidez Hiru Haundixek hiru egunetan eitten ibili gizenok eskerrak emun gura dotzugu zure kolaboraziñuegatik. Ah! eta Dukieneko Dionik aho bete emungo dotzu gure konture. Portau haiz! Ibiltariok.
- Apirilaren 18ko goizean, buru marroia eta txuria duen ehiza txakurra galdu zen Larriñon. Norbaitek ikusi badu, dei egin dezala mesedez 79 93 52 tfnora.

**Aste Gazte**

**Auzolandegiak**

• Estatu espainoleko plazak astelehentik aurrera (maiatzak 3) erreserba egiteko.

**Udalekuak**

• Plaza telefonoz (43 00 30) erreserbatu ondoren, Gazte Bulegoan jaso daitezke inprimakinak inskripzioa egiteko.

**Gazteria eta natura**

• Beste zenbait aukera erakargarri: a) Egonaldiak Covadonga eta Ordesako Parkeetan, 12-14 urte bitar-

tekoentzat; b) Ibilbideak Parkeetan zehar, 15-17 urte; c) Erreken jaitzierak (Pisuerga eta Tajo) 15-17 urte. 2 astetako egonaldiak, 22.000 PTA.

**Besaideko gazte ekintzak**

• Izpegi mendatetik Herri Urratsera mendi ibilbidea, maiatzak 8-9. Gaua Baigorriko aterpean. Prezioa: 2.000 PTA. Izene-mateak: maiatzak 3, 4 eta 5, arrats. 7.30etatik 8.30etara, Besaideko egoitzan.

**Lehiaketak**

• Arrasateko San Juan Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Teknika librea. Sari bakarra: 100.000 PTA. Epea: maiatzak 21.

• Erreteriko "Maddalenak 93" iragartzeko kartel lehiaketa. Teknika librea. Sari bakarra: 130.000 PTA. Epea: maiatzak 21.

• Erretereria Hiriko V. Komiki Lehiaketa. 16-30 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Zuribeltzean. Euskaraz nahiz gazteleraz. Sariak: 50.000, 20.000 eta 10.000 PTA. Epea: Ekainak 4.


**"Amets eroen garaia gaiditurik, eguneroko errealitateari eraginkortasun pragmatikoz aurre egin eta ongizate materialaz arduratzea izango omen da belaunaldi berrien lehen kezka, kezka nagusia, ia-ia bakarra."**

**AGUSTIN ARANZABAL**



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

## Z E R N A H I A G O ?

**Gorka Uriarte****Gorka ileapaindegikoa**

- **Zenbat bezero egunean?** 16 bat bataz beste.
- **Gustokoa duzun janaria?** Goxokiak asko gustatzen zaizkit.
- **Antzerkia gustatzen zaizu?** Bai gustatzen zait, baina gutxitan joaten naiz.
- **Izan duzun minik txarrena?** Zorionez, ez naiz gogoratu ere egiten.
- **Herrietako jaiak gustatzen?** Bai, inguruko herrietakoak: Oñati, Bergara, Arrasate...
- **Kiroldegira joateko ohiturarik?** Ez, horretarako nik dudan baino denbora libre gehiago behar da.
- **Telebista aurrean zenbat ordu egunero?** Oso gutxi, ordubete edo.
- **Krisiaren eraginik somatu duzu?** Bada ez, ileapaindegira beti etortzen dira bezeroak.
- **Nongo bezeroak etortzen zaizkizu?** Arrasate eta Aretxabaletakoak batez ere. Horretaz gain Mutrikutik, Oñatitik...
- **Baserria ala kaleko etxea?** Baserria, lasai bizi izateko.
- **Oporrak noiz hartzen dituzu?** Abuztuan.
- **Ehiztarien alde ala kontra?** Bada, ez alde, ez kontra. Familian lau ehiztari ditut.
- **Ile luzea ala motza?** Motza gehiago gustatzen zait.
- **Arrasatearra ala atxabaltarra sentitzen zara?** Atxabaltarra.
- **Ospitalera joateko beldurrik?** Ez, gutxi dela egon nintzen, baina horrek ez dit beldurrik ematen.
- **Telefono zenbaki asko dakizkizu buruz?** Bai, oso memoria ona dut.
- **Zenbat lora dituzu etxean?** Asko, etxean bertan, lorategian...
- **Eskiatzen egon zara noizbait?** Ez, baina badut joateko kuriositatea.

**BERTSOAK****BEDEINKATUTAKO JAKIAK**

Oraindik egun asko ez tala etxetik irten nintzan da, irakurtzeko egunkaria neurekin eskutan nula; bizitzen geran etxetik gertu daukagu janari denda; an inguruan exeri nintzan giro txarra etxegon da.

Oi dan bezela dendako atean saski batzuek zeuzkaten, fruta ta beste gañerakoak, ogia ere bai baten; nun ikusten det saski bateri txakur bat pixa egiten; gero beste bi urbildu ziran, eta berdin egin zuten.

Urte luzetan ni ogibidez kale-zain izan nitzan da, orduan ere olaxe giñan txakurrak txakur ziran da; aritzen giñan iñola moduz gauz onik egin ezinda; ona gaur ere zer gertatzen dan ainbeste urte joanda.

**JOSE MANUEL ARRIOLA**



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Mentxu, 'Okupa 1'



Iñigo, 'Okupa 2'



Lorillo, 'Don Jaime'



Ander, 'Don Andres'

# Tunantes del Norte, munduari barrez

Luis Fernandez

**Tunantes del Norte** antzerki taldeak obra berria estreinatu du aste honetan Arrasateko Gaztetxean, eta larunbat honetan errepikatuko dute emanaldia Monterongo parkean, euririk ez bada. Duela sei urte gaztetxean sortutako talde honek egindako 6. muntaia nagusia da "Una de casas", eta etxebizitza falta eta horren inguruko arazoak ditu gaitzat. Etxea okupatzen duten gazte batzuen gorabeherak, eta burokrazia eta agintetik gainera datorkien zurrunbiloa da obraren ardatza. **Tunanteek** hurbiletik ezagutzen duten arazoa, euretarik sei etxe okupatuetan bizi dira eta.

Bederatzi dira Tunantes del Norte-koak une honetan: Alberto, Kermi, Lorillo, Santi, Ruben, Josema, Ander, Iñigo eta neska bakarra, Mentxu. Denak arrasatearrak, Ruben Aramaiokoa izan ezik. ARRASATE PRESSEK Mentxu, Lorillo eta Santirekin hitz egin



Autodidaktak dira tunanteak, elkarren irakasle nahiz eta baduten zuzendari bat, Ruben.

JABIER

du beren lan eta norabideaz.

Duela sei urte, Gaztetxean sortutako aktibitate taldeen artean antzerki tailer bat sortu zenean, hantxe jaio zen taldea. Hogei bat lagun ziren orduko hartan, eta "Es que estamos hartas" lana egin zuten. Bigarren muntaierako, taldea txikitu eta finkatu egin zen orain daukan egituraraino.

Irakasle gabe sortu ziren, eta hala segitzen dute. "Ez dugu inoren testurik erabiltzen, dena geure artean egiten dugu", esplikatzen digute. Jarrera autodidaktiko hau

kontzientea da, baina autodidaktismoa ez da anarkia hutsa: "Batek, Rubenek, zuzentzen gaitu, edo zuzentzen saiatzen da behintzat".

## ANTZERKI ALTERNATIBOA

Definizioekin jolasean, alternatiboak baina kontrakulturalak ez direla diote *tunanteek*. Santiren iritziz, dena den, "gure zirkuitoa bada alternatiboa, baina gure lana edo gure tematika ez; beste talde batzuek ere gai berak ukitzen dituzte, baina ez dira ibiltzen


gu gabiltzan bezala. Adibidez, Els Joglars bezalako talde batek antimilitarismoa ere jorratzen du oso gogor", esplikatzen du Santik... "Baina V. Menduurenean parte hartu zuten gero!", gehitzen du Lorillok.

Beren zirkuitoa gazte mobiden ingurukoa da bati-pat. Gaztetxeetan zehar asko ibiltzen dira, eta baita ekintza antimilitaristen inguruan ere, ez Euskal Herrian bakarrik, kanpoan ere bai. Arrasaten egin zuten azken gauza, adibidez, abenduan nazioarteko





Alberto, 'Txomin'



Santi, 'Don Aurelio'



Joxema, 'Teknikoa'



Ruben, 'Zuzendaria'

HIESaren egunean egindako kale espektakulua izan zen. Bilboko Gaztetxearen itxialdiaren kontrako ekintza kolektibo batean ere hartu zuten parte. Oraingo muntaia-aren ideia, adibidez, Iruñeko etxe okupatzaile batzuekin elkartasunean bertara eraman zuten *esktx* batean oinarritzen da. Hura egitera joan zirenean, udaltzainek indarrez atera zituzten handik, eta hortxe gorpuztu zen "Una de casas"-en ideia.

Halako inguruetan, askotan borondate hutsez izaten da. *Tunanteak*, beraz, talde zinez amateurra dira. Baina ez dira bakarrak, era honetako antzerki txiroa egiten duten talde mordoxka bat bada Euskal Herrian. "Taldea asko gara, baina diruak betiko lauek eroaten dituzte, Geroa-k eta horiek. Adi, talde onak dira, baina dirua gaizki banatuta dago, hori ezin zaio talde horiei leporatu, beharbada".

Udalak 300.000 PTA inguru ematen die, eta lokal "txiki samar bat" ere uzten die. Baina beren iazko gastuak 1,2 milioikoak izan ziren, eta ez da eiraza horrela kontuak egitea. "Zer esango dizut ba?", esaten digu Mentxuk, "an-



Taldea alternatiboa dela diote, gaiengatik baino zirkuitoagatik.

tzerkiak arruinatu egin behar nau, kanpora irten behar dugunean, lanean ordezkoa bilatu behar dut eta ordaindu egin behar diot".

**BETI UMOREZ**

Baina diru gutxirekin bada ere, aurrera segitzeko gozoz

daude Tunantes del Norte-koak. "Aurrera egin eta umorez", diote. "Barre egin behar zaio munduari, eta geure buruari, negar egiteko badugu dagoeneko telebista, badugu Abigail". Izan ere, barrea da beren lanetako elementu zentraletako bat. Orain-

go obra hau, adibidez, sainete txiki bat da, medio larregi barik egina, diru faltagatik batipat. Aurreko lanean, "Dosis de pasividad" izenekoan, askoz ere elementu gehiago sartu zuten, sua, itzal-jokoak, malabarismoa eta jendearen partaidetza. Dena den, berrikuntza bezala, "Una de casas"-en filminekin jokatzeko dute dekorazioan.

Filminez gain, "mailu bat eta ezer gutxi gehiago" erabili dute muntaia honetarako. Antzerki txiroa da *Tunanteena* baina kalearekin beste inorena baino hobeto lotua ere bai, agian. Lan honetan etxe faltaren gaia ukitu duten bezala, aurrekoetan jendearen pasibitate, eguneroko bizitza estresatuaren topikoak edo intsumisioaren gaiak ukitu zituzten. Beren lan ezagunena, 'Cirio', soldadutzaren ordezko Zerbitzu Sozialaren parodia bat da, behin eta berriro antzesteko eskatzen dietena handik eta hemendik. "Hori entsaiatu ere ez dugu egiten jada, automatikoa da", esaten dute. Automatikoa bai, baina umoreaz beti: negar gehiegi egiten dugu eta, batzuetan barrea ere komeni zaigu.

JABIER


Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

Iturriotz, 7  
ARRASATE  
Tefnoa: 790467

· ESAERA ZAHARRA ·

*“Apirila botz,  
miseria ogi-artoz”*

· JEROGLIFIKOA ·



Gipuzkoako herria

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6		7
8							
9							10
11							12
13				14	15		
16			17				
18							

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Bizkotxo txiki meheak. 8. Skaut Taldea. 9. Zurezko xafla. 10. Nor pluralean. 11. Ziza. 12. Musika-eskalako 6. nota. 13. Erne. 14. Zein unetan. 16. Bi, erromatar erara. 17. Tantai. 18. Hauteman.

**Bertikalak** 1. Apezpiku. 2. Erregelamendu. 3. Garbitu. 4. Geza. 5. Euskadi Ta Askatasuna. 6. Atzoko kontsonanteak. 7. Zikindu. 10. (Ald.) Teilatua egiteko pieza. 14. Lahar. Okitu aditzaren infinitiboa. 17. Tantaloa.

· HOROSKOPOA ·

**Aries** Har ezazu aterkina, eurijasa batek harrapa zaitzake eta.

**Taurus** Joan lehenbaitlehen okulistarengana, zure arazoa grabea da eta.

**Gemini** Lanik ez duzu faltako astean zehar, baina gogoa bai.

**Cancer** Ez pasa hainbeste denbora ispiluari begira, puskatu egingo duzu eta.

**Leo** Nahaigabe txikiak ez zaizkizu faltako baina txikiak direnez, aurrera egin.

**Virgo** Esana dizut lehenago ere mutik horrekin ez duzula ezer egiterik.

**Libra** Hauteskundeak datozela eta, politikari sartzeko aukera ezin hobea daukazu.

**Scorpio** Inoiz baino ekologistago sentituko zara. Zeuk jakingo duzu zergatia.

**Sagitarium** Kontuz ibili esaten dituzenarekin, zure kalterako izan daiteke eta.

**Capricorn** Amak zigortu egingo zaitu aste osoa ontzi-garbitzen ipiniz.

**Aquarius** Lankideekin harremanak gutxiagotuz joango zaizkizu.

**Piscis** Fraka motzetan jartzeko gogoa nabarituko duzu “tipoa” luzitzeko.

# BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

**Mamografia**

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

## • MARIA JESUS MITXELENAREN GOMENDIOA •



**Maria Jesus Donostiako onkologiko institutuko sendagilea da. Bularreko minbiziak emakumeengan duen eragin handia dela eta, prebentzioa gomendatzen digu. "Oso inportantea da emakumeak bere bularra aztertzen ikastea, baina horretaz gain, medikuarengana urtero joatea gomendatuko nuke, mamografia baten bidez tumore txikiak ere denboraz hartzen direlako. Oraindik emakumeok ez gara gehiegi kontzientziatzen gaisotasun honetaz". Batez ere 30 urte baino gehiago duten emakumeengan izaten du eragina, "emakume gazteetan ere ezagutu dira kasu batzuk baina kopuru txikian, 40 urte baino gehiago duten emakumeetan ematen da batez ere"**

## • PROGRAMAZIOA •

**2 Igandea**

8.15 Monterock  
8.45 Mondragol

**3 Astelehena**

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Mondragol  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Mondra Sport  
10.00 Asteko Zinea:  
Zorginen madarikazioa

**4 Asteartea**

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Mondra Sport  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak.  
9.30 Bakarka  
10.00 Asteko Zinea:  
Zorginen madarikazioa

**5 Asteazkena**

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bakarka  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Pareak Jokuan.  
10.00 Asteko Zinea:  
Zorginen madarikazioa

**6 Osteguna**

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Pareak Jokuan  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 ATBketan.  
10.00 Asteko Zinea:  
Zorginen madarikazioa

**7 Ostirala**

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 ATBketan  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Monterock.  
10.00 Asteko Zinea:  
Zorginen madarikazioa

## • KOMIKIA •



## • SOLUZIOAK •

**JEROGILIFIKOA**

Belzama.  
17. Ta.  
Kakatu. 10. Alier. 14. Nar. 15. Oki.  
3. Ikuzi. 4. Lala. 5. ETA. 6. Tz.7.  
Bertikalak: 1. Gotzain. 2. Arandia.  
13. Adi. 14. Noiz. 16. II. 18. Nabartu.  
12. 9. Taula. 10. Ak. 11. Zuz. 12. La.  
**Horizontalak:** 1. Galtiak. 8. Orka.  
**GURUTZEGRAMA**

**ARRASATE  
PRESS  
HARPIDETZAK**



**77 05 65**

**mokasin**

**Zapatak eta  
osagarriak**

Kontzeziño, 6  
Tfnoa: 76 06 78  
ARRASATE

**ZUBIZARRETA  
TAILERRAK**


Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65

**URRATS  
AHOLKULARITZA**

GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 



## SUKALDE LILURAGARRIAK!

### SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g

**ARRASATE**

Tfnoa: 79 00 43

Ipeñarrieta, 5

**URRETXU**

Tfnoa: 72 50 75

### BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

**ARRASATE**

Tfnoa: 79 99 42